

uk


200. zenbakia / 2011ko abuztuaren 1a



Abarrak Euskara Elkartea Aizpea Euskara Taldea Alozo Euskara Elkartea Ametza Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) Arrekikili Euskara Elkartea Asapala Euskara Elkartea Austarri-Korta Kultur Elkartea Axola Kultur Elkartea Bagera Euskaltzaleon Elkartea Bai Esan Santurtzin Euskaraz Baleike Kultur Elkartea, Zumaia Basalarrina Kultura Elkartea Belaiki Euskara Elkartea Berbaizu Euskara Elkartea Berbalamiñe Euskara Elkartea Berbaro Elkartea, Durango Berbetan Euskara Elkartea Berbots Erandion Euskaraz Bidabarri Bierrik Elkartea, Sakana Bizarra Lepoan Euskara Elkartea Boluntzarreta Euskara Bultzatzeko Elkartea Danbolin-Zulo Kultur Elkartea DHK-Durangaldeko Herri Komunikabideak Dindaia Fundazioa, Iruñea Dobera Euskara Elkartea Donostiako Komunikabideak Egizu Euskaldunon Elkartea Eixu! Zaldibarko Euskara Taldea Ekin Emakumeak Elkartea Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea ...Eta Kitto! Euskara Elkartea Euskal Birusa Elkartea Kulturala Euskaldunon Biltoki Euskara Añana Mingainean Euskarabilla Kultur Taldea Euskaraz Bermeon Eusker Gultzagand Elkartea Ganoraz Arratiako Euskara Elkartea Garean Euskara Elkartea Geu Gasteiz Euskalduna Elkartea Goibeko Kultur Elkartea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goierriko Euskal Eskola Gure Txeru Kirol eta Kultur Elkartea Gurien Bai Euskera Elkartea Gutxisolo elkartea Hitzaro Elkartea Hodoibaltza Euskara Elkartea Hogeitalau Euskara Elkartea Illati Euskara Elkartea Irun Iruten Jardun Euskara Elkartea Karenka Komunikazio Elkartea Karkara Taldea Kultur Elkartea Karrika Euskara Elkartea Karrikaluze Ikartea Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkartea Kima Euskara Elkartea Lagatzu Euskara Alkartea Lau Haizetara Elkartea Lizardi Mintza Elkartea Loramendi Elkartea Mailope Kultur Elkartea Manuel Larramendi Bazkuna Maxixatzen Euskara Elkartea Nañon Euskal Kultur Elkartea Noaua! Kultur Elkartea Orraittio Euskara Elkartea Pausu elkartea Pil-Pilean Kultur Elkartea Sasiburu elkartea, Barakaldo Totoan Tiki-Ttiki Euskara Elkartea Trolebu Kultura Elkartea Ttakun Kultur Elkartea Ttiki-Ttiki Euskara Elkartea Ttipi-Ttapa fundazioa Txatxilipurdi Tximintx Euskara Elkartea Txirrit Euskara elkartea Txokolo UKBerri elkartea Uztartzen Kultur Elkartea Xaloe telebista Xorroxin elkartea Zaldiko Maldiko Zenbat Gara Kultur Elkartea Zertu Kultur Elkartea Zingor Zintzo Euskara elkarteen federazioa Mintzo Zorrizketan Kultur Elkartea Zorroka Euskara Taldea Zuhatza Euskara Elkartea

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algotako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Zikoinak Plentzian.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Martikoena 16, Algorta.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Jorje Perez.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. UK aldizkaria labean, inprenta.
- 28. ARGAZKIA. Herriak bere legea, etxeak bere aztura.
- 30. BERBETAN. Jokin Aspuru.
- 34. FOTOGRAFIA. Askoren artean, Uribe Kostra.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. "Xora" Zubererazko filma.
- 43. MUSIKA. Getxo Folk Jaialdia.
- 44. LIBURUAK. Poesia irati saioa.
- 45. KIROLAK. Ugeraga Txirindularitza Taldea.
- 46. ELKARRIZKETA. Xabier Buenetxea, Bolue.

AMAITZEKO

- 49. UDAKO ZAPOREAK. Bacalada Berangon.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Berangoko Futbol Taldea, 1985.
- 54. AITORMENAK. UK-ko potoa.

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz



30 Jokin Aspuru
Berbetan
Esku artean duzunaren sortzaileagaz berba egin dugu zenbaki borobil honetarako, iraganaz eta etorkizunaz.



54 UK-ko potoa



Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Unai Brea

> kazetaria, UK-ko aspaldiko laguna

Urreari laudorioa (eta kritikaren bat)

Uste dut orain askoz txukunago da-biltzala, arlo horretan, UK egiten dutenak, baina orain dela urte batzuk, etxe honetan kazetari jarduteko ohorea eduki nuenean, aldizkaria ixteko eguna ailegatzeak ezinbestean zekarren goizaldeko ordu txikietara arte geratzea beharrean. Janari hondarrek, garagardo lata hutsek eta tabakoaren keak inguratuta amaitzen genuen hurrengo zenbakia, ezin nekatuago, ezin giro hobean.

Halako gau batean suertatu zitzaidan 50. zenbakirako erreportaje bereziari azken ukitua ematea. Titular on bat behar genuen, eta UK siglakaz nenbilen jolasean, halako batean, garagardoak lagundutatedo, inspirazioak jo ninduen arte. Berrogeita hamargarrena, urrezko ezteiak... Badago! UK= Urrezko Kazeta. Gogoratu-ko da ni ez beste inor titular hartaz? Ezezkoan nago.

Hamabosteroko urre puskak huts egin barik kaleratzen segitu du, eta konturatu orduko, hara!, 200. zenbakia dela-eta zerbait idazteko eskatu didate orain lema daroatenek. Kontatu barri dizuedan gauaz akordatu naiz, eta pentsamendu tonto bat etorri zait gogora: urrea aipatu banuen 50.enean, zer elementu kimikogaz egin nezake jolasa 200.enerako? Baina U hizkiaz hasten direnetatik uranioa baino ez zait bururatu, eta berehala baztertu dut, sobera dago zergatia esplikatzea.

Fukushima, haserretuen kanpaldiak, euskal gatazkak hartu duen bide itxaropentsua... Kazetaritzan gabiltzanontzat sasoikitzikagarria da bizi dugun hau. Egun-karien azaletan agertzen diren kontu horiek ez dira, noski, hau bezalako herri aldizkari batean dabiltzanen ohiko gaiak. Protagonismoa, UKn, UK-k behar du, alegia Uribe Kostak. Horrek ez du esan gura, ordea, hemen bertan geure Fukushimak, geure haserretuak, geure gataz-



kak... ez ditugunik. Ez dakit dotorea den honelako testu batean halako kritika egitea, baina horien falta igartzen dut nik aldizkarian.

Adierazi gura dudana hobeto esplikatzeko, ni baino askoz kualifikatuagoa den Josu Amezagaren berbak hartuko ditut maileguan. Iazko azaroan argitaratu ziren hemen bertan, irakurleei egindako inkestaren barri emon zenean: "Faltan ditut herrietako eguneroko bizitzarekin zerikusi handiagoa duten gaiak; herriko arazoak,

polemikak, eztabaidak, udalgintzaren kritika politikoa..". Badakit, ondo dakidanez, eskatzen nabilena ez dela lortzeko erraza.

Eta badakit esku artean duzun urre zati honek gero eta kilate gehiago eduki dezan -eta baditu asko- jo eta ke dabilela UK-ko lan talde txikia, eta zalantzarik ez daukat ahalegin horretan barruak hustuko dituztela. Horregatik, eta kritikak kritika, metal bitxia bailitzan segituko dut hamabostero postontzitik hartzen neure UK dosia. Zorionak! ○

gu geu

201, 202... eta etorriko direnak!

Hona hemen zuretzako oparia. Badakigu gaur ez dela zure urtebetetze eguna, baina zurekin batera ospatu gura dugu esku artean duzun zenbaki borobila. Zergatik? Zuk egiten duzulako UK. Azken finean, zuhaitza erortzen bada, baina inguruan zarata entzun duen inor ez badago, zaratarik egin du? Zu zara UK-ko entzule-irakurle-ikuslea, UK errealtate egiten duena. Zu barik ez dago UKrik. Horregatik, txokolatzeko arrautza ezagunak bezala, erdian sorpresa duen zenbaki berezi honegaz, zorionak opa gura dizkizugu! Zorionak ni eta zu, gu, UK garelako.

200. gaur eta hortik aurrera 201, 202, 203... eta etorriko direnak! Eta aurpegi gehiago, berba gehiago, aldarrikapen gehiago, telefonoan jasotako kritika gehiago, herri ondare gehiago, e-posta gehiago... etorkizunera begira jarriko gara. Proiektu honen sortzaile eta gidari izan den eta erdiko orrietan Berbetan aurkituko duzun Jokin Aspuruk dioen bezala, hobe delako etorkizunera begiratzea, iraganean galtzea baino.

Gure aldetik, askoz gehiagorik ez. Hurrengora arte; irailean, postontzian, tabernan edo kioskoan egongo gara! Bitartean, uda ona pasa, gutxi gasta eta bueltak.... UKri!

UK-ko lantaldea



PLENTZIA, 2012KO UZTAILA

Umerik ekarriko ote zuten? Ez da oso ohikoa, baina hirigune batzuetan egon badaude. Asko sinestu barik ibili da, baina bai, zikoinak dira Plentziako zeruan hegari ikusi dituztenak. Habia egin dute, kumeak eduki dituzte eta apurka-apurka, aurrera egiten ari dira; irudi honetan ikus daitezke gurasoak kumeei jarekoa emoten. Hegazti migratzaileak dira eta tximinia, tellatu edora kanpandorrean egiten dute habia. Toki zabaletan elikatzen dira, hezetasuna eta animalia asko dagoen guneetan. Udazkenean, Afrikara alde egingo dute, baina udabarrian bueltan izango ditugu. Bitartean, ondo joan! ○ / Argazkia: Asier Menteak

URTERO 20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



GETXO UDAL LEBURUTEGIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / MARTIKOENA KALEA 1972-2011

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > UK umorea



Testua: **Joseba Santxo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Umorea jartzea
ez denez pekatu,
atzea garbitzera
gara animatu!
Beraz atzealdera
dugu begiratu;
aurrean papera-ta
ez dena bUKatu...
atzean 200 alez
gara ilustratu!

2

Umoreak badauzka
hamaika kolore:
beltz, zuri, gorri, berde,
marroi edo more...
Orain mintzatuko naiz
UKren fabore:
kolore larra baino,
maila ona hobe;
UK zuri-beltzean,
baina zer dotore!

3

Umorez amaitzeko
txiste on bat behar!
Itzel bat pasatu zait
garunetik zehar;
barrearen barreaz
baietz egin negar:
UK aldizkaria
itxiko da bihar!
Kar, kar, kar, kar, kar, kar
kar, kar, kar, kar, kar, kar!!!

* Doinua: Batetikan korroska

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidali
iezaguzu atal honetan agertzea nahi
zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko
duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

2011ko uztaila, Martikoen 16 (Algorta)

euskara > bideo-jokoak gazteen artean euskara ikastea sustatzeko



Eskualdeko herri guztiek hartuko dute parte egitasmoan

Musika eta rol jokoak nahasten dituen egitasmo batez bultzatuko dute euskararen erabilera gazteen artean. Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxo, Leioa eta Erandioko Udalek osatu zuten Ipar Uribe proiektua eta mundu mailako ideia lehiaketa bat abiatu zuten; Philippa Barr antropologo australiarraren egitasmoa aukeratu dute beste 27ren artean: bideo-joko bat. Conexiones Improbables enpresagaz elkarlanean aritu dira 16 eta 25 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa sortzeko helburuagaz. Sustatzaileen iritziz, Philipparen proiektua berritzailea da, bideo-joko baten bidez musikan eta parte-hartzaileek garatu beharreko istorio baten kontaktaren nahasketan oinarritzen da eta. Oraindik eragile sozialen ekarpenak biltzen ari dira, baina urtarrilerako amaitu gura dute. Egitasmoaren aurrekontua 12.000 eurokoa da eta biztanleen arabera ordainduko dute lau erakundeek. ○

getxo > Itxartu Dantzari Taldeak ordezkatu du Euskal Herria Txekian



www.itxartu.com

Klakovy hiriko (Txekiar Errepublika) Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartu du Algortako Itxartu Dantzari Taldeak, euskal ordezkari gisa. Uda folklore jaialdiz josita dago bazter guztietan, eta uztailaren 7tik 10era bitartean bisitatu dute Europako herrialdea algortarrek. Jaialdian eskaini dute urtean zehar prestatu duten dantza sorta ederra. Itxartu Taldea 30 dantzari eta musikaririk osatzen dute, eta besteak beste, Bizkaiko dantzari dantza, Behe Nafarroako Luzaideko dantzak eta Gipuzkoako dantzak erakutsi dituzte Txekiar Errepublikan. Euskaldunetz gainera, Mexiko, Kolonbia, Alemania, Grezia, Serbia, Eslovenia eta Txekiar Errepublikako taldeek dantzatu dute. Izan ere, Jaialdiaren helburuetako bat da euren arteko harremanak sortu eta sendotzea. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com /Tf. (+34) 943 140 143

UK9


getxo > sortu da Romoko emakumeen asanblada



Azken erasoak salatzeke mobilizazioa egin zuten uztailaren 15ean

Orain gutxi sortu da Erromoko Emakumeon Asanblada eta auzoan gertatutako eraso bat salatu zuen uztailaren 15ean. Azken urtean hainbat sexu eraso gertatu da Romon eta horrelako gehiagorik “*egon ez dadin aldarrikatzeko zein horiek errazten dituen patriarkatua salatzeke*” burutu zuten mobilizazioa. Auzoan alarma gorria piztu eta emakumeen egoera jasanezina bihurtu dela oharrarazi dute, “*emakumeok aske bizitzeko eskubidea*” aldarrikatzeagaz batera. Ildo horretan, arazoaren muina sistema kapitalista dela salatu dute: “*bazterketa eta indarkeria sistema kapitalistak erabiltzen duen patriarkatuaren ondorio dira*”. Haren oinarria hierarkia dela azaldu dute: “*Gizonak emakumeen gainetik egotea, menderatzaileak eta menderatuak egotea, horixe da gizarte patriarkalaren oinarria, gizon eta emakumeen arteko harremanen eskemaren funtsa*”. Espero dezagun salaketa barrietarako eraso gehiago gerta ez daitezen. ○

zinema > Gotzon Elortzaren filmak proiektatuko dituzte Zinemaldian



Euskarazko lehen dokumentalak dira Elortzaren hiru filmak

Zinemagintzaren harribitxiei merezitako lekua egingo diete Donostiako Zinemaldian. Euskarazko lehen dokumentalak dira, Gotzon Elortza algortarraren hiru film: *Ereagatik Matxitxakora* (1960), *Aberria* (1961), eta *Elburua Gernika* (1962). Euskadiko Filategiak berreskuratu ditu eta Zinemira atalaren barruan emango dituzte. Elortzak dioenez, “*edozein hizkuntza gutxitu, laguntza audiobisualik gabe, heriotzera kondenatuta dago*”, baina euskara debekatuta, errepresioa jasan zuen bere ekimenaren ondorioz: atxilotu, torturatu eta espetxeratu zuten 1968an. Euskarazko zinerako lehen urratsak eman zituen Elortzak eta ondorio latzak pairatu zituen. UKren 173. zenbakian eman genuen historiaren barri, gure webguneko artxiboan topatuko duzu: www.aldizkaria.biz. ○



“Beste herri-aldezkarieretatik aldendu gura genuen: fondo beltzak sartu, diseinua gehiago landu...”

Jorje Perez > UK letra tipo ipurterrea

Berbakaz dantzan kazetariak, testuak erretratuakaz janzen argazkilaria, iragarkiak lotzen publizista, sasikazetarion ‘*bakatzak*’ orrazten zuzentzailea... UKn danok dekgu gure egitekoa. Eta danon lana biribiltzeaz eta itxuroso jartzeaz arduratzen da Jorje Perez, UK-ko maketatzailea, aldezkarieri txapela jartzen diona: “*Azken ikutua emotea besterik ez da, lana zuek egiten dozue*”. Algortarrak aldezkarieraren lehen maketa sortzen parte hartu zuen, 1995. urtean: “*Lagun bategaz bulegotxo bat zabaldu gendun Bilbon Korrikaren kanpaina egiteko. Eta berton agertu zen Jokin*”. UK-ko zuzendariak maketazioan laguntzeko eskatu, eta ezagun izatetik, lankide izatera igaro ziren. Eta lankide izatetik, lagun izatera. Bion artean nortasuna emon zioten UK-ko itxurari: “*Oinarria Bizarra Lepoan aldezkariera zen, baina beste herri-aldezkarieretatik aldendu gura genuen: barriak ordenatu, fondo beltzak sartu, diseinua gehiago landu...*”. Egun, urte batzuetako hutsunearen ostean, aldezkariera diseinatzen jarraitzen du Jorjek. Bi astean behin egiten digu bisita Eibarretik, zierre egunetako kaosaren erdian, pazientziagaz: “*Herrira etortzeko aitzakiak dira UK-ko bisitak, trago pare bat hartu eta lagun eta familiagaz egoteko aprobeztatzen ditut*”. Bitartean, herrigintzako eragileetan dihardu, betiere maketatzaile legez: “*Etzetik jaso dut, ofizioz, aita publizista zelako. Oso gustukoa nuen... eta 27 urte daroadaz honetan!*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Zahartzaroa aurrez aurre

GETXOPHOTO Argazki Jaialdiak **irailaren 1etik 30era** bitartean hartuko ditu herriko kale eta aretoak; 5. edizioan **zahartzaroari gorazarre** egingo diote **nazioarteko artisten** hainbat lanegaz

Irailaren 1etik 30era
GETXOPHOTO Argazki Jaialdiaren 5. edizioak hartuko ditu Ereagako hondartzatik Portu Zaharrera arteko hainbat txoko. Aurten zahartzaroari gorazarre egingo diote Begihandi elkarteak lagunek. Jarduera nagusiak 1etik 4ra bitartean egingo dira; horien artean, artistakaz batera egingo duten Openinga.

Gure aitita-amamek asko daukate oraindik bizitzeko eta esateko. GETXOPHOTO Argazki Jaialdia antolatzen duen Begihandi elkarteak zahartzaroari egingo dio gorazarre irailaren 1etik 30era ospatuko den jaialdiaren 5. edizioan: *“Gaur egun, gaztetasuna goستن den garai honetan, zaharra izatea ez da egokia. Zaharrak garela onartzea, etengabe mugimenduan dagoen gizartetik baztertzea da”*. Nagusien eguneroko bizitzako pasarteak umorez zein begi kritikoagaz erakutsiko diguten 20 artisten lanak hurbilduko dituzte Getxora: *“Zaila egiten da zaharrak irudikatzen dituzten lanak ikustea, estetikoki polita ez delako. Edizio honetan, GETXOPHOTOk komunikabideetatik kanpo geratzen dena erakutsi nahi du”*. Andrew Zuckerman autore estatubatuarra, adibidez, 65 urtetik gorako aktore, politikari, erlijio buruzagi eta bestelako pertsona eza-gunen irudiakaz jolasten duen proiektu multimedia ekarriko du. Luis Cobelok, aldiz, nagusientzako edertasun lehiaketetara eraman du argazki kamara.



Mamika. Sacha Golderberg

Erakusketak Ereagako hondartzatik hasita, Algortako Portu Zaharraren ardaztean zehar kokatuko dituzte, nagusiki. Herri-gunean, aretoetako erakusketak ikusi ahal izango ditugu. Jarduera nagusiak irailaren 1etik 4ra egingo dituzte.

«Openinga irailaren 1ean 20:00etan egingo da Andres Isasi Musika Eskolan»

Lehenengo egunean, Openinga egingo dute Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 20:00etan. Bertan, jaialdiaren azken bost urteak errepasatzeaz gain, Michael Ackermanen lanaren proiektio berezia egingo dute, Mursego taldearen zuzeneko musikak lagunduta.

Programatutako ekintzen artean Arianna Rinaldok edizio grafikoari buruz eskainiko duen tailerra da azpimarragarriena. Horrez gain, *Ibili* -bisita gidatuen programa- eta *Photo Walk* -argazkilaritza estudio eta galerietarako bisitak- egingo dira, berriro ere. *Papel* ere interesatuen esku egongo da, argazkilaritzari buruzko liburu eta aldizkariaren kontsulta egiteko gunea.

Joan den urteko jaialdiko piezak berreskuratu eta objektu barriak egin dituzte diseinatzaileen laguntzagaz. Aurrekoetan bezala, aurten ere, Atfal-Getxo pro-Sahara elkarteari emango diote merchandisingagaz lortzen duten dirua.

Fran Kalero, OjodePez aldizkariko sortzailea eta zuzendaria izandakoa, izango da komisarioa 5. edizio honetan. o

Info+: www.getxophoto.com

Pinueta eta Romoko Jaiak > “3,2,1... Piiiiztu!”

Danen artean eta danontzat egindako egitaraua prest dute Romon



Txosnak Santa Eugeniatic Geltoki plazako parkingera mugituko dituzte aurten

Kokaleku aldaketa txiki batzuekaz, prest dira Pinueta eta Romoko Jaiak. Aurten, txosna gunea mugituko dute; Santa Eugeniatic Geltoki plaza ondoko aparkalekura eramango dute, herrikoek “Kabul” izenez ezagutzen dutenera. Abuztuaren 2an, aurre-txupina jaurti eta egun osoko egitaraua prestatu dute motorrak berotzen joateko. Hurrengo egunean, herriko neska kirolariak arduratuko dira pregoia irakurri eta suziria jaurtitzeaz, 19:30ean. Hortik aurrera gozatzeko, elkarte, ostalari eta koadrilek, Jai Batzordeagaz elkarlanean, leher eginda amaitzeko moduko egitaraua prestatu dute.

Bazkariak, kalejira, gastronomia eta bes-

telako txapelketak, suzko zezena, erakusketak... Ia astebetez, goizean hasi eta gauzez, musika eskaintzagaz, amaituko dira ekimenak. Kontzertuen artean, ohikoa den Ska-Reggae jaialdiagaz batera, Berri Txarrak eta Ze Esatek taldeenak dira entzutetsuenak, herriko taldeenaz gain.

«Berri Txarrak eta Ze Esatek taldeek joko dute»

Abuztuaren 2an, Felix Arnaiz frankismoaren biktimari omenaldia egingo diote jai egitarauaren barruan. Jaiak borobiltzeko, azken gauerako “3,2,1... Piiiiztu!” antzerkia prestatu dute Jai Batzordeko lagunek. Gozatu! o

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 2, martitzena:**
 - Aurre-txupina (Sta. Eugenia; 12:00)
 - Omenaldia Felix Arnaizeri (Lehengo barrak, 13:30)
 - Herri bazkaria, Getxoko Etorkin Elkartegaz (Sta. Eugenia, 14:30)
 - Goitibehera igoera (Txistularien aldapan, 21:30)
 - DJ (Cervantes plaza, 23:30)
- **Abuztuak 3, eguaztena:**
 - Plater irekia (Cervantes plaza, 14:30).
 - Koadrilen olinpiadak (Cervantes plaza, 17:00)
 - Txosnen irekiera (Txosnak, 18:00)
 - Pregoia eta Txupina (Sta. Eugenia, 19:30)
 - Transformismoa (Ganeta, 23:00)
 - Taldea lokala/Ze Esatek (Txosnak, 23:00)
- **Abuztuak 4, eguena:**
 - Trikitixa (Herrian zehar, 12:00)
 - Herri marmitakoa (Anaiak taberna, 14:00)
 - Herri Krosa (Sta. Eugenia, 19:30)
 - Bertso saioa (Txosnak, 20:30)
 - Txapel Jaurtiketa (Andros Taberna, 21:00)
 - Taldea lokala eta Berri Txarrak (Txosnak, 23:00)
- **Abuztuak 5, barikua:**
 - Txistulariak (Herrian zehar, 12:00)
 - Mosteo-Rallya (Txosnak, 13:30)
 - Herri Kirolak (Nafarroa kalea, 20:00)
 - Koadrilen Playbacka (Txosnak, 22:00)
- **Abuztuak 6, zapatua:**
 - Putxera lehiaketa (Ganeta, 9:00)
 - Igela txapelketa (Kresaltxu, 13:00)
 - Bertsojira (Txosnak, 19:00)
 - Koadrilen afaria (Sta. Eugenia, 21:30)
 - Ska-Reggae Jaiak (Txosnak 21:30)
 - Elektro gaua (Cervantes, 22:00)
- **Abuztuak 7, domeka:**
 - Tanga lasterketa (Pipi taberna, 7:00)
 - Azoka (Ibaiondo kalea, 10:30)
 - Tortilla txapelketa (Artaza, 12:00)
 - Antzerkia/Traka (Txosnak, 23:00)

* Ez dago egitaraua osorik

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

<http://www.etxeart.com>

LZParen Aurkako Asanblada > kanpaldia irailaren 8tik 11ra

“Herriek euren antolamendu propioa behar dute; ez du zentzurik Foru Aldunditik egiteak”



Irailaren 8tik 11ra egingo dute kanpaldia Asanbladako lagunek

Eskualde osora zabaldu gura badute ere, egun Getxo eta Leioako kideek hartzen dute parte LZPren Aurkako Asanbladan. Lurralde antolakuntza eredu barri baten alde egiten dute behar, bizi eredu barri baten alde. Nekazal eremuak babestea eta lurragaz dugun harremanari garrantzi handiagoa ematea dira Asanbladaren ildo nagusietako batzuk. Irailaren 8tik 11ra euren aldarrikapenak kaleratzeko kanpaldia egingo dute Andra Marin, Ibarbengoa Metro geltoki barriaren inguruetan; kanpadenda hartu eta hurbiltzera animatu gura dituzte heldu eta gazteak.

—Nortzuek osatzen duzue Asanblada?
—Egun Leioa eta Getxoko kideak gaude, baina Uribe Kosta osora zabaldu gura dugu. Herriz herriko plataformak sortzea litzateke onena. Egun, gure lan gehiena Getxon egiten dugu.
—Nondik dator Asanblada?
—LZPren aurkako borroka bazegoen Asanblada sortu baino lehen. Auzokideak horretan egon dira aspalditik; Amarratsak kolektiboa ere horretan ibili zen. LZPren aurkako asanblada Ur Korrontea Plataformatik sortu zen orain

hiru urte baino gehiago.
—Egun, zein da Asanbladaren zeregina?
—Bizkaia Benetan Maite Plataformagaz elkarlanean egon gara eta orain martxa antolatzen ari gara. Tartean herriz herriko HAPNak noiz aplikatzen diren jarraitzen dugu, zerbait antolatu behar bada informatuta egoteko. Asanbladak behar handia egin du plan horiek guztiak aplikatzeko erabiltzen diren txostenak irakurtzen, lantzen eta ulergarriago egiten. LZP ikasi eta gure txosten propioa egin dugu. Gure beharra informatiboa da batez ere; beste

herrietako asanbladakaz elkarlanean egoten gara. LZPtik haratago goaz; eraikuntza masiboaren kontrako mugimendua sortu gura dugu.
—Zein da zuen jarrera LZPren aurrean?
—Bertan behera uzteko eskatzen dugu; ez

«Hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, proiektzioak, bazkari tematikoak...»

dakigu hori herri bakoitzeko HAPNak geldituz egin behar den edo beste plan eredu bat ateraz. Argi dago eredu barri bat sortu behar dela; herriek euren antolamendua egin behar dute, ez dauka logikarik Foru Aldunditik Bizkaia osorako plan bat egitea. LZPri ezetz esatea baino askoz gehiago da: nekazal eredua babestea, lurrarekiko harremanari garrantzia ematea etab.
—Zertan datza iraileko kanpaldia?
—Irailaren 8tik 11ra egingo dugu, Andra Marin, Ibarbengoa geltokiaren inguruan. Asmo nagusia da Andra Marin egin gura dutena salatzea. Metro geltokia Andra Marin egin gura dutenaren sinboloa da eta jendea mobilizatu gura dugu. Egun bakoitza tematikoa izango da; hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak eta bestelakoak egongo dira. Lehenengoa, *Getxo Saca Pecho*, Getxoko egoeraren ingurukoa izango da. Bigarrena, aldiz, *Erne Atxurnak*, elikadura subiranotasunaren ingurukoa. Hirugarrenari, *Herri nortasuna vs Hiri bakardadea* izena eman diogu eta azkenari *Lurra eta Askatasuna*. Baratza eta animalien inguruko tailerrak, bertso afaria, dokumentalen proiektzioak etab. egingo dira. Jendea kanpadendagaz hurbiltzera animatu gura dugu; edozein, ez bakarrik gazteak, helduak ere bai. Oinarrizko azpiegitura gure esku. o

Info+: ptp-lzp.ez@hotmail.com

Portu Zaharrean > gozatu, dantzatu, zoratu!

San Nikolas egunean, 12an, hasi eta 15ean pijama jantzita esango dute agur



Abuztuaren 12an hasi eta 15ean, Marmitako egunagaz, amaituko dira jaiak

Itsas-auzo txikiko jai handiek ume, gazte zein helduen hormonak eta neuronak dantzan jarriko dituzte, berriro ere. Aurten, abuztuaren 12tik 15era ospatuko dira Portu Zaharreko Jaiak, herriko azkenak.

Ohikoak diren koadrilen jaitsiera, sokamutur, altxaldi eta kukañari, Sorkun eta eta herriko taldeen kontzertuak eta igeriketa txapelketa gehituko zaizkio aurten. Aurrekoetan bezala, aurten ere jaietako ikurra den Txoren eta Portu Zaharreko gainerako pertsonaien historiaren antzezpena egingo dute abuztuaren 14an, iluntzean, Etxetxutik hasita hon-

dartzaraino.
Hilaren 13an, kiroleko herri-txapelketa bi egingo dituzte. Eguerdirako, I. Igeriketa Ibilbidea antolatu dute Getxo Waterpoloko

«Waterpolo taldeak igeriketa txapelketa antolatu du abuztuaren 13rako»

lagunek. Helduentzako ibilbidea Arrigunagatik Portu Zaharreraino joango da. Arratsalde, mele txapelketaren II. edizioagaz batera, Getxo Herri Kirolak eta Getxo Rugby taldeen arteko norgehiagoka egingo dute. o

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 12, barikua: San Nikolas**
*11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, haurrentzako parkea behean (egunero)
-Txupina eta jaien hasiera (12:00)
-Haur laguntaldean jaitsiera (Kasino plazatik hasita, 12:15)
-Haurrentzako diskoteka (13:00)
-Laguntaldean jaitsiera (Kasino plazatik hasita, 18:00)
-Sardina jana (19:30) (egunero)
-Pregoiaren irakurketa (19:30)
-Haurrentzako zinea (Doc. Pedro Bilbao plaza, 21:30) (egunero)
-Kontzertuak: Keman Kaia, Sorkun eta Gora Herria (21:30etik aurrera)
- Suzko zezena (Aparkalekua, 22:30)
- **Abuztuak 13, zapatua:**
-Sokamuturra (10:00)
-Kantu-poteoa (12:30)
-Igel eta Tiragoma txapelketa (13:00)
-Txiki-ibilbidea igerian (Ereaga, 13:00)
-Ibilbidea Arrigunaga-Portu Zaharra igerian (14:00)
-Haur-kukaña (hormatar txikia, 16:30)
-Buruhandiak (17:00)
-II. Mele Txapelketa (17:30)
-Beteranoen estropada (17:30)
-Herri-giroa Josu Doncelegaz (20:00)
-Dantzak Itxas Argiagaz (hormatar handia, 21:00)
-Bertako taldeen kontzertua (22:30)
- **Abuztuak 14, domeka: Txiki Eguna**
-Haurren margo-lehiaketa (11:00)
-Haurrentzako jolas eta tailerrak (11:30)
-Altxaldiak (17:00)
-Apar festa (18:00)
-Altitia-amamentzako musika (19:30)
-Antzerkia (Etxetxutik, 21:15)
-Laguntaldean emanaldia (22:00)
- **Abuztuak 15, astelehena: Pijama**
-Marmitako lehiaketa (09:30-14:00)
-Haurren arrantza-txapelketa (10:30)
-Bertsolariak eta sari-banaketa (17:00)
-Berbera Luhartzegaz (21:00)
-Laguntaldean sari-banaketa (22:30)

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Iker Kamiruaga > Antzinako autoen eta motorren erakusketaren antolatzailea

“Aitak Seat 600 batean eroaten ninduen ikastetxe-
ra, hortik datorkit antzinako autoen zaletasuna”

Ezohiko ekitaldia egingo dute irailaren 11n, Udondoko jaietan: antzinako autoak eta motorrak erakutsiko dituzte, bigarren, Leioako eta inguruko hainbat lagunek. Besteren artean, Iker Kamiruaga dabil ekimena antolatzen, berak ere eroango du bere autoa.

—Udondoko Jai Batzordeagaz batera antolatzen ari zarete antzinako autoen eta motorren erakusketa, ezta?
—Nik auto bakarra daukat, Seat 127 autoaren motorea daukan Seat 600 bat da, baina aitaren lagun batek badauzka batzuk. Herrian antzinako autoak dauz-kagun hainbat lagun gabilta ekimena bideratzen.

—Klasikoak edo historikoak dira?
—Denetarik erakutsiko dugu. Guztiek izan behar dute 25 urte baino gehiago, baina klasikoetan ez da beharrezkoa motorea originala izatea. Adibidez, nirea klasikoa da, baina Jose Antonio Alzagak badauka historiko bat, Citroen 11 ligero bat. Auto eta motorren artean 30 edo 40 ibilgailu ekarriko ditugu. Leioakoak eta eskualdekoak izango dira. Goizeko 10:00ak aldera biltzen hasiko gara Udon-doko aparkalekuan eta ikusgai utziko di-



Irailaren 11n erakutsiko dituzte autoak, Udondoko aparkalekuan

tugu goiz osoan zehar. Ez ditugu mugitu-ko, agian hurrengo batean antola daiteke ibilaldia herrian zehar.
—Ez da ohikoa jaien barruan horrelako ekitaldirik topatzea, nolatan otu zaizue?
—Egia esan, Jai Batzordekoei otu zitzaie-n eta Jose Antonio Alzagagaz harremanetan ipini ziren, ezagunak dira eta. Alzagak guri esan, mugitzen hasi eta iazko jaietan egin genuen lehen erakuske-ta; aurtengoa bigarrena izango da.

—Zuri nondik datorkizu zaletasuna?
—Nirea ez da ohiko kasua, nahiko gaztea naiz, 32 urte dauzkat. Baina aitak beti-danik izan du zaletasuna, txikitan Seat 600 batean eroaten ninduen ikastetxera. Agian horregatik, deigarriak gertatu zaiz-kit beti horrelako autoak. Asteburuetan eta euririk egiten ez badu bakarrik era-biltzen dut nirea, baita kontzentrazioak eta erakusketak daudenean ere. Zaindu beharra dago, 1968koa da eta. ○

Jairik jai udara osoan

Badatoz **San Bartolome eta Udondoko** festak, **abuztu** bukaeran eta **irail** erdialdean



Joxpa taldeak dantzan ipiniko ditu udondotarrak irailaren 10ean, zapatua

Apurka uda badoa aurrera, nahiz eta eguraldiak aurkakoa iradoki, eta auzoeta-ko festak ere badoaz aurrera. Auzo asko dago Leioan eta ate joka daude jaiak hain-baten. Besteak beste, abuztuaren bukaeran San Bartolomek ospatuko ditu, eta iraila-ren erdialdean, Udondok.
Hil honen 24an jaurtiko dute txupina San Bartolomen. Igel-toka lehiaketa, idi-probak eta erromeria izango dira. Lisker taldeak joko du. 25ean, eguenarekin, umeentzako jolasak zein sardina jana egin-go dituzte, eta kontzertua eskainiko du Cover Radiok.
Barikuan, futbito eta tortilla txapelke-tak izango dira, eta erromeria Luhartzen esku geratuko da. Zapatua, barriz, nekazal

giroan ospatuko dute eta azoka, Euskal Jantzien lehiaketa, herri- bazkaria eta asto-probak egingo dituzte. Egan taldeak giro-tuko du gau epela, 24:00etatik aurrera. Domekan amaituko dituzte jaiak, marmi-tako txapelketa ezagunagaz.
Udondo ere ez da atzean lotuko eta irailaren 10 eta 11rako zerbait prestatu du-te. Zapatu goizean botako dute txupina eta egun osoan zehar hamaika gauza egongo da: paella eta mus txapelketak, kanta pote-oa, umeentzako jolasak, Amancio tronpa-laria, Aizkolarien Bizkaiko Opena, mozo-rro gaua eta erromeria Joxpa taldeagaz. Domekan, nagusientzako luntxa egingo dute eta euskal dantzak zein Los 5 bilbai-nos taldearen emanaldia ikusiko ditugu. ○

ONDIZEN EZ DA BAKAILAORIK FALTAKO

Urteroko hitzordua dute Ondizko Bakailao Txapelketa leioaztarrek. Irailaren 18an egingo dute aurten, betiko legez, jaien barruan. Goizean goiz joan behar da leku bila eta eguerdian eman behar da izena. Bizkaiko erara prestatzen dute bakailaoa Ondizen eta 70 kazolatik gora aurkeztu ohi dituzte. Zeu ere animatuko zara? Bestalde, auzoko jaietan hainbat ekitaldi izango da, irailaren 8, 9, 11 eta 18an: idi-probak, Aurreku Txapelketak, herri-kirolak, igel-toka txapelketa, etab. Erromeriak ere antolatu dituzte, Alaiki taldearena 9an eta Luhartzena 18an, Bakailao Txapelketaren egunean. Aitzakia gehiagorik behar duzu Ondizko bidea hartzeko?

HAUR ESKOLA BARIK 2012 ARTE

Irailean ziren Altzoan Haur Eskola zabaltzekoak Txomin Aresti eskolaren alboan. Ostera, Udalak dioenez, “Eusko Jaurlaritzak langileak kontratatzeko aurrekonturik ez du” eta 2012 arte atzeratuko da haurreskolaren irekiera, urtarrilera arte. Horregatik, azaroan zabalduko dute datorren urterako izena emateko epea.

Info+: www.leioa.net

ODOLA ETA BIZITZA EMAN, LEIOAN ERE BAI

Odola emateko egutegia finkatu du Leioako Odol Emaleen Elkarteak abendura bitartean. Gura duenak Aldapa kaleko 3.era (Sakonetatik sartu) hurbildu besterik ez dauka odola emateko. Ondoko datetan egin daiteke: abuztuaren 23an 16:30etik 21:00etara, irailaren 27an 9:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 21:00etara, urriaren 22an 9:00etatik 14:00etara eta 26an 16:30etik 21:00etara, azaroaren 22an 16:30etik 21:00etara eta abenduaren 27an 9:00etatik 14:00etara zein 16:30etik 21:00etara.

Info+: 900 303 404 edota dosanlei@gmail.com

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

Abant

Basarrate 20 lonja 48991 (Alqorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

- Ikaskuntzaren zailtasunak

(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

LUBERR

Basolanak SL

Lorezaintza

Luberri Basolanak, SL

Axpe ibaiertza 28A

beheko solairua B12 lokala

Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38

Tf. :94 467 17 13

Faxa: 94 467 42 41

luberri@euskalnet.net

www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauskea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

16UK

UK17

[erandio]

Tucker Davila Wood > zinegilea

“Beste pertsona, produktore eta laguntzen mende egon izan banintz, ez nukeen egingo hau guztia”

Erandion fijatu da Tucker Davila Wood Plentziako zinegilea bere film laburretako bat kokatzeko: **Los 4 Macnifikos**. Arrakasta handia eta sari asko lortu du; baina zergatik Erandion?

—Tucker, zergatik lekutu duzu film laburra Erandion?
—Batez ere bere erakargarritasunagatik. Paisaia hori ere oso gurea da, Labe Garaiak ikusten dira. Aspaldi gura nuen bertan grabatu. Kamerari ondo egokitzten zaio eszenatokia.
—Nondik dator filmerako ideia?
—Galdera ulertzen dut, baina oso espontaneoa izan zen. Beti erakarri nau hip-hop kulturak eta *break dance*-ak. 80-ko hamarkada hasierako urteen kultura horri buruzko zerbait egin gura nuen, jatorria amerikarra izan arren. Baina ezin nuen berezko dokumental gisa aurkeztu eta komedia bat egin dut.
—Batzuetan ematen du aktoreek inprobisatzen dutela.
—Bai, gidoia egon badago, baina eszena batzuetan inprobisatzen utzi genien, freskura eta naturaltasuna lortu guran. Nahiz eta dokumental kutsu hori eman, aktoreek erakusten dute fikzioa dela. Izan ere, pertsonaiak sinetsita daude istorioa benetakoa dela; hor antzematen da



Jon, Pedro eta Xabier dira protagonistak Los 4 Macnifikos film laburrean

ez dela egiazkoa. Freskura ere hor ikusten da.
—Umoreak garrantzi handia dauka?
—Bai, dagoeneko zazpi film labur egin ditut eta umorea elementu komuna da guztietan, absurdora jotzen duen umorea. Film batzuetan agerikoagoa da, beste batzuetan ñabardura trajikoak dauzka... Kasu honetan ez da horrela, zorakeria da filma. Baina bai, umorea oinarritzko osa- gaia da nire lanetan.
—Sari asko eman dizute, baina film

luze bategaz ausartuko zinategi?
—Duela urte asko daukat buruan, baina ez dago nire esku. Bi gidoi idatzi ditut, baina bitartekorik ez daukat. Film labur- rraz orain ez dago hedabideen behar handirik, duela hamar urte gertatu ez bezala. Gaur egun aurrera egin dezakezu, baina hirugarren pertsona, produktore eta diru-laguntzen mende egon izan banintz ez nukeen egingo hau guztia. Laguntza oihu desesperatua da hau, ea ekoizleren bat animatzen den. ○

Sanagustinak zerumugan
Altzagako jaiak ospatuko dituzte **abuztuaren 25etik 29ra** eta ekitaldiz **gainezka datoz**



San Agustín jaietako Arrantza Txapelketa, duela zenbait urte

Erandion ez dago etenik. Gaur he- men eta bihar han. Atsedenerako tarte barik daramate maiatzetik hona, jairik jai. Urtero lege, festa garrantzitsuenetakoek iragarriko dute amaiera. Sanagustinak os- patuko dituzte Altzagan abuztuaren 25etik 29ra, ia urteko azkenak.
Eguenean lehertuko da festa, eguer- dian jaurtiko dute txupina. Koadrilek jai- tsiera egingo dute 18:30ean eta gauerako Gala Afaria prestatu dute; elegante jantzi! Ondoren DJ Munzak nahastuko ditu bazterrak txosnetan.
Barikuan egingo dute tortilla txapelke- ta, 26an. Herri bazkaria ere egongo da eta

euskal dantzen erakustaldia 19:00etan. Playback lehiaketa 22:00etan hasiko da eta kontzertuak 00:30ean. Los Chikos del Maiz eta Hesian taldeek joko dute.
Zapatuan, Gazte Bazkaria egingo dute txosnetan eta arratsaldean bertsolariak, aurrezku lehiaketa etab. izango dira. Zea Mays eta Bongo Botrakok joko dute gauean eta Kulero eta kaltzontzilo laster- keta goizaldeko 3:00retan hasiko da. Domekan, barriz, hamaika gauza egongo da ikusteko: goitibeherak, bits-jaia, euskal dantzak, erromeriak edota bilbainadak. Astelehenean bukatuko dira sanagusti- nak, kukaña eta Larrain dantza tarteko. ○

ORAIN, ERANDIOGOIKOA, SANTIMAMI ETA ENEKURI

Festarik festa Erandion. Altzagakoak izango dira luzeenak, baina Erandiogoikoa, Santimami eta Enekuri auzoetatik ere egin beharko da txangoa. Erandiogoikoarrak oso festazaleak dira eta Andra Mariren omenezko jaiak ospatuko dituzte abuztuaren 14an eta 15ean. Santimamik hartuko die lekukoa, abuztuaren 17an eta 18an, eguaztena eta eguena. Denboraldia ixteko Enekuri auzora hurbilduko gara, bertako jaiak ospatzen baitituzte iraileko lehen asteburuan. Hau da estresa!

BITS OF JAZZ IKUSGAI ABUZTU ETA IRAILEAN

Oporrak izanagatik kulturak ez dauka mugarik, eta Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxeak ez du atsedetik hartuko. Abuztuaren 9tik irailaren 7ra *Bits of Jazz* argazki erakusketa bisitatu ahal izango da, 10:00etatik 15:00etara: “Ezberdinak ote dira argazkilarien ideiak, hautemateak edo aukeraketak kamera digitalak erabiltzeagatik? Bit, kbyte, megak etab. ditugu buruan ala irudiak pentsatu eta sentitzen ditugu? baliatutako tresna bigarren mailara pasatzen da, izan ere, azken helburua ez da kode bitarra, ezta erreakzio fotokimiko bat ere, baizik eta argi, itzal... eta, kasu honetan, musika instant baten adierazpen subjektiboa. Hau da, komunikazio bizi eta zuzeneko saiakera bat. Jazzaren antzera...”.

Info+: www.erandio.net, agenda

ENERGIA AURREZTU GURAN KIROLDEGIAN

Altzagako kiroldegian energia- eraginkortasun sistematik ipiniko dituzte, energiaren %20 aurrezteko asmoz. Hainbat aldaketa egingo dute, besteak beste, bigarren erregailuan gas naturala erabiltzen hasiko dira eta igerilekuko klimatizaziorako bateriak aldatuko dituzte. Orotara, 38.169,51 euro gastatuko dute. Udaletxea berotzeko ere gas naturala erabiliko dute, hemendik aurrera.



irratia 108 fm



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

AZOKA, TXAPELKETAK ETA MUSIKA EUSKAL JAIAN!

Irailaren 10 eta 11n ospatuko dute aurten sopoloztarrek Euskal Jaia. Zapatuan, Nekazal Azoka izango da udaletxe inguruan, 10etatik aurrera. Halaber, txalaparta erakusketa eta ttakun-ttakun egiteko aukera egongo da. Arrastiko sari-banaketaren ostean, Sokaidek kontzertua eskainiko du, 21:00etan. Domeka goizean, Zirri Marra elkarteak margo-lehiaketa antolatu du, eta aldi berean, Fermin eta Eusebio Sukalki Txapelketa egingo da. 12etan, txistu-kontzertuaren txanda helduko da eta sari-banaketen ostean, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoek ikuskizuna egingo dute, arrastiko 6etan.

EZ DITUZU LABARRAK ORAINDINO EZAGUTZEN?

Urruneko paisaiak ezagutzera bidaiatu, eta oraindino zure herriko ondarea ezagutu barik? Atzeritarrek eta bertakoek Sopelako labarrak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte. Abuztuaren 14 eta 28an eta irailaren 11 eta 25ean irtengo dira, goizeko 10etan, Turismo Bulegotik. Helduek 3 euro ordaindu beharko dituzte, eta haurrek, barriz, euro bat.

ERDU UGERAGARA, FUT-BOL TALDEA OSATZERA!

Neska bazara, 16 urte baino gehiago badituzu eta lagunartean futbolean aritu gura baduzu... Ugeraga futbol taldea da zure aukera! Sopoloztarrek deialdi publikoa egin dute hurrengo denboraldirako taldea osatzeko. Izan ere, aurten gogotsu aritu diren arren, ez dituzte emaitza oso positiboak lortu eta hurrengo denboraldian Ugeraga indartu gura dute. Interesa baldin baduzu, honako telefono zenbakira dei dezakezu: 625704498 (Ale). Bestalde, eguraldi ona baliatuta, hondartzako futbol txapelketa antolatu du Kultur Etxeak abuztuaren 12, 13 eta 14rako. Eta irailaren 3an, barriz, futbola utzi eta aireko inauteriaren txanda helduko da.



Zazpi eguzki, zazpi ilargi
Irailaren 2tik 4ra ‘7 Sois 7 Luas’ nazioarteko folk jaialdiak geldiuenea egingo du Sopelan



Jaialdiaren izena Jose Saramagoren “Memorial del Convento” eleberritik hartu dute

Europa hegoaldeko eta Afrika iparraldeko makina bat hiritan ospatzen den ‘7 Sois 7 Luas’ jaialdia Sopelara helduko da irailaren 2an. 1993. urtean Portugal eta Toskanan jaiotako folk jaialdiak “*kultur aberastasuna azaleratu eta ezagutaraztea*” du helburu. “*Europako hegoaldea mugarik gabeko eremu gisa ulertu eta etengabeko kultur trukaketa sortzea da xedea, hiri txikiak kokagune hartuta*”.

Euskal Herrira 2008. urtean heldu zen, Debara hain zuzen. Aurten Sopelaren txanda helduko da. Hiru kontzertu

eskainiko dituzte irailaren 2, 3 eta 4an, 20:00etan, Udaletxe plazan. La voix de 7 sois taldeak (Mediterraneo) emango dio hasiera jaialdiari. Hurrengo egunean, Siziliatik datorren Mario Incudinek hartuko du lekukoa, eta bukatzeko, Piccola Banda Ikona taldearen doinu italiarrak egongo dira entzungai. Antolatzaileen arabera, jaialdian parte hartzen duten musikariak “*sustraietan oinarria duten artistak*” dira: “*Ezberdintasunari balioa eman eta herri bakoitzak gordetzen duen aberastasuna azaleratu nahi dugu*”. ☺

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Nekane Goiri eta Yvette Zubiaga > Zirri Marra elkarte

“Taldea sortu zenean sei izango ginen, eta oin gare 123 bazkide!”



Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte: hitzaldiak, eskolak, urteerak...

Irailaren 11n Euskal Jaiaren bigarren eguna ospatuko dute sopoloztarrek. Goizean, besteak beste, margo-lehiaketa egingo dute, Zirri Marra elkartearen eskutik. Nekane Goirik eta Yvette Zubiagak ederto azaldu dizkigute elkar-tearen nondik norakoak. Erdu lehiaketan parte hartzera!

—**Kanpoko margo-lehiaketa antolatu-ko duzue irailaren 11n, ezta?**

—Bai, sei urte daroaguz antolatzen. Hainbat kategoria egongo dira: 0 urtetik 6ra, 6tik 9ra, 9 urtetik 18ra eta helduak. Ume asko egoten dira, hirugarren urtea da txikerren lehiaketa antolatzen doguna. Ilusiño handiagaz datoz, ganera danek dekelako oparixu bet... eta amak goize duztie libre, hori berebai, egi da!

—**Eta parte-hartzaileek zer margotu beharko dute? Zein da gaia?**

—Herriko gauzak, Sopelari buruzkoak: hondartza egiten da asko, Baleako parkea, eleiza, metroa, Barrikarantza doan San Andres eleiz txikitxue... Herriko

duzti! Parte-hartzaileei dagokienez, 30 nagusi eta 60 txiki izaten direz.

—**Eta elkarte** noiz eta zelan sortu zan? —Hamar bat urte daroaguz. Holan izan zen: koadrilatxu bet batu, lagunek, eta danari gustaten jakon pinta, dibuja... Eta klaseak hartuten ia danak joaten ziren. Ordun, sei izango ginen, eta danon arten, Sertutxa tabernan batu, eta Manu Sertutxakoa izan da presidentea igez arte. Eta oin gare 123 bazkide! Baina denek ez deure pintaten.

«Umeak ilusiño handiagaz datoz, danek dekelako oparixu bet»

—Urtean zehar beste zer edo zer antolatzen duzue?

—San Pedro jaietan esposiziño bat egin dogu betiko modun, dibujo eta akuarela klasek, irteerak berebai egingo dire, bisitak museoetara (hurrengo Thyssen museora, Madrilera), pintorek etorten dire, Ricardo Aldamaren txarlak... ☺

DIDAK
hAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

SANTO DOMINGOETAKO
EKITALDI BATZUK

Abuztuak 4, eguena (Santo Domingo)
11:00 Txupina eta animazioa
13:00 Tortilla txapelketa
16:00 Futbito txapelketako partidak
18:00 Haur-berbena: Txorromorro
19:30 Eskupilota partidak: finala
20:00 Txokolatada
22:00 Erromeria Saltoka taldeagaz
Abuztuak 5, barikua
12:00-14:00/17:00-20:00 Haur-parkea:
jumping, looping bike eta puzgarriak.
19:00 Bits festa
19:00 Herri-kirolak. Erakustaldia eta parte
hartzeko aukera
20:00 Buruhandiak
20:30 Capoeira emanaldia
22:00 Mozorro lehiaketa
22:30 Kontzertuak: Napalm eta Gora Herria
Abuztuak 6, zapatua
12:00 Zur-jolasak Sabino Arana kalean
13:00 Poteoa herritik animazioagaz
17:00 Mus-txapelketa eta igela
17:00 Futbito-txapelketa: finala
17:00 Txirrindularitza herri-lasterketa
19:00 Antzerkia: *Galtzagorriei to, Inaxito!*
20:00 Sagardo festa: trikitilariak,
bertsolariak..
21:00 Gazteentzako bakarrikzeta
22:00 Kontzertuak: Rotabator eta Hesian
Abuztuak 7, domeka: 55. Bacalada
11:30-18:30 Haur-parkea: puzgarriak etab.
13:00 *Aldeanito* txapelketa
13:30 Bakailao kazolen aurkezpena
17:30 Berbena
18:00 Sari-banaketa

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1• ALGORTA

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Aitzakiarik ez, **parte hartu!**
Santodomingoak berpizteko asmoz, egitarau
potoloa prestatu dute **abuztuaren 4tik 7ra**

55. Bacalada jaietako egitarauaren barruan sartuko da aurtén

Nagusiek, kirolariek, langabetuek, euskalariak, ikasleek, gautxoriek... aurtengo Santo Domingo jaietan berangozta guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Kukullaga Jai Batzordeak eliza inguruan ospatzen diren jaiak berpiztu gura izan ditu. Izan ere, azken urteetan Santa Ana jaiak hartu dute garrantzirik handiena eta santodomingoak alboratuta lotu dira.

Horretarako, egitarau potoloa prestatu dute, eta parte-hartzea izango da barriro protagonista nagusia. Berangoz-tarrek (eta herrira hurreratzen direnek)

hainbat txapelketa izango dituzte zain: tortilla, mus, futbito, bakailaoa, *aldeanitoak*... Halaber, hainbat ekimen barri egongo dira, txirrindularitza herri-lasterketa, kasu. Ekimen guztiak udaletxe aurrean egin beharrean, hainbat ekintza Sabino Arana kalean egingo dira, jai-eremua zabaltzeko eta bertako komertzioei laguntzeko. Aurtengo nobebade nagusia da *Bacalada* tradizionala jaien egitarauan dagoela (informazio gehiago UK-ko 49. orrian). Barraken eguna, bestalde, abuztuaren 3a izango da. Ondo pasa! o

[urduliz]

Jokin Gezuraga Elorriaga > Chalwa Band & King Konsul

“Urdulizen betidanik egon da reggae munduko kutsua”

80ko hamarkadako reggae ingelesa eta jamaikarraren eragina nabaria da Chalwan.

Irailaren 10ean kontzertua eskainiko dute Chalwa Band & King Konsul taldeko lagunek Urdulizen, jaietako egitarauaren barruan. Kakarraldo Jaialdia egon ez arren, reggae gaua antolatzen jarraitzen du Jai Batzordeak. Bertan izango dira Chalwako musikari urduliz-tarrak, euren lehenengo diskoa aurkeztan. Ez galdu kontzertua!
—Nondik dator reggae taldea sortzeko ideia?

—Urdulizen betidanik egon da reggae munduko kutsua. Jende piloak elkartu ginen reggaearen inguruan, eta herri txikia garenez, azkenean kontzertuetara joateko batzen ginen. Eta horrela taldea sortzeko ideia bururatu zitzaigun, 2006. urtean. Hasieran sei lagun ginen. Hiru urte beranduago, Txapel Reggae Jaialdiko kanta egitea proposatu, eta bertan King Konsul zaruaztarrak batu ginen. Ondo moldatzen ginela ikusi, eta alka-

regaz jarraitzea erabaki genuen. Egun, guztira hamaika kidek osatzen dugu taldea, baina oinarri-oinarrian zazpi gara, horien artean lau urduliztar.
—Zer lantzen duzue letretan?
—Egunerokotasunean izaten ditugun arazoei buruz kantatzen dugu: herri txiki-tako bizimodua, maitasun kontuak...

«Egunerokotasunean izaten ditugun arazoei buruz kantatzen dugu»

Ingelesezt eta euskaraz abesten dugu.
—Zuen lehen diska kaleratu barri duzue, “Bass-Country” izenpean. Zer nolako harrera jaso du?
—Oso pozik gaude, ekainean kaleratu genuen eta jada 800 ale baino gehiago banatu ditugu. Web orrialdetik eskura daiteke. Gure hurrengo kontzertua, bestalde, Aste Nagusian izango da. o

Info +: www.chalwaband.com

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4

48600 Sopelana

Tf. 94 404 74 20

CITA PREVIA

oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSTAIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina

ALGORTA

94 430 76 96

Torre 2

48990 ALGORTA

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA

VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)

Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

22UK

UK23

INDARTSUEN DESAFIOA
URDULIZKO JAIETAN!

Iraileko asteburu bitan ospatuko dituzte Urdulizko jaiak, ohi dan legez. 8an hasiko dira, Andra Mari Txirindularitza Sari Nagusiagaz. Hurrengo egunean, Dementzia, Ze Esatek eta Drindotsen kontzertua izango da. 10ean IV. kotxe-slaloma antolatu dute, eta asteburua bukatzeko, domekan goitibehera jaitsiera. Hurrengo asteburuan herri bazkaria, eskupilota partiduak, eta Laukizko indartsuen kontrako desafioa egongo da.

GORLIZEN ORAINDINO JAI
GIROA: ANDRAMARIAKI!

Santiagoen lekukoa hartuko dute Gorlizen Andra Mari jaiak, abuztuaren 5etik 7ra arte. Txupinazioaren ostean, Aratz dantza taldearen emanaldia izango da. 19:00etan Perurena aita-seme harrijasotzaileak egongo dira, eta gauean, barriz, talde lokalek hartuko dute eszenatokia. Hurrengo egunean, tortilla txapelketa, Gorriti eta Drindots taldearen berbena egongo da. 7an, bukatzeko, paella txapelketa antolatu dute. Abuztuaren 20 eta 21ean, barriz, Urezarantzako jaiak izango dira.

EKOLOGISTEN BANDERA
BELTZA BARRIKARI

Urtero Ekologistak Martxan taldeak kostaldeko gune beltzak salatzeko hainbat bandera beltz banatzen ditu. Uribe Kostak bakarra jaso du, Barrikan, Barrikabasoko txaleten auzia dela eta. Egun, 85 txaletetako proiektutik 14 txalet daude eraikita, baina euren etorkizuna erabaki barik dago oraindik.

PLENTZIA

Udako jai maratoiagaz amaitzeko... sanantolinak!



Abuztuaren 30etik irailaren 4ra izango dira Plentziako jaiak

San Antolin jaiak helduko dira Plentziara abuztuaren 30ean, uda osoa auzoetako jaiakaz igaro ostean. Irailaren 4ra arte luza-tuko diren festetan hamaika ekimenez gozatzeko aukera izango dute plentziarrek. Lehen egunean, kalejira eta herri-bazka-riaren ostean, harrera egingo diete Antolintxu eta Madalentxuri. Arrasti alde-an, fanfarria eta gauean, berbena zuriaren txanda helduko da, Lisker taldeagaz.

Hurrengo egunean, bits-festa, mozo-rrro lehiaketa, play-back proba eta txosne-

tako kontzertuen txanda izango da. Eguena Euskal Jai eguna izango da. Horregatik, Nekazaritza Azoka eta IV. Euskal Jantzien lehiaketa antolatu dute. Gualdean, kantaldia izango da Alde Zaharrean eta 23:00tan erromeria Trikiziogaz. Irailaren 2a Koktel Eguna izango da -San Antolin egunean, hain zuzen- eta hurrengo egunean, marmita-ko txapelketa egingo dute. Tortilla txapelketak, bits-festak eta pailazoez eman-go diete amaiera jaiak. ○

Abu. 1 - Ira. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

- **Edith Kiriakovaren margoak.** Goñi Portalen. Abuztuaren 15a arte.
- **Isabel Abaden margoak.** Goñi Portalen. Abuztuaren 16tik 30era.

GORLIZ

- **Paul Igartua.** Erakustaretoan. Abuztuaren 4tik 12ra.
- **Guillermo Ortega.** Erakustaretoan. Abuztuaren 13tik 21era.

ANTZERKIA

BERANGO

- **Galtzagorriei to, Inaxito!** Santo Domingo jaiak. Abuztuaren 6an, 19:00etan.

LEIOA

- **Patxin eta Potxin pailazoak.** Santimamiko jaiak. Abuztuaren 18an, 19:30ean.

GORLIZ

- **Zirika Zirkus.** Gazte Topalekuan. Irailaren 17an, 19:00etan.

MUSIKA

BERANGO

- **Txorromorro haur berbena.** Santo Domingo jaiak. Abuztuaren 4an, 18:00etan.
- **Napalm eta Gora Herria.** Santo Domingo jaiak. Abuztuaren 5ean, 22:30ean.
- **Rotabator eta Hesian.** Santo Domingo jaiak. Abuztuak 6, 22:00.

ERANDIO

- **Esfinter, Gritando en silencio eta Dj Mangas.** Astrabuduko jaiak. Abuztuaren 4an, 22:30ean.



10:00etan ipiniko dituzte postuak Biotz Alai plazan eta Batzokiko patioan

► **Azoka**

San Lorentzo, abuztuko azoka Algortan

Sasoi ederra da uda azokak egiteko eta Getxoko Algorta auzoan ohitura dute San Lorentzo egunez, abuztuaren 10ean, nekazal produktuen feria egiteko. Piperrak, letxugak, tipulak, porruak, indabak, azenarioak, azak etab. nekazarien eskutik zuzenean eros daitezke baratzeke jakiak San Lorentzo egunean, Biotz Alai plazan eta Batzokiko patioan. Goizeko 10:00etatik aurrera prest egongo dira postuak, eta produktuen erakusketa zein salmentaz gainera, txapelketa ere egingo dute, ohiko legez. Eguna borobiltzeko, ohitura ere bada Biotz Alai abesbatzaren emanaldia, izen bereko plazan. Gaueko 21:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

• **Non:** Algortan • **Noiz:** Abuztuaren 10ean, goizez

- **Keman kaya, Parpadeo eta Ze esatek.** Astrabuduan. Abuztuaren 5ean.
- **Staun eta Hora zulu.** Astrabuduan. Abuztuaren 6an, 22:30ean.

URDULIZ

- **Dementzia, Ze Esatek eta Drindots.** Urdulizko jaiak. Abuztuaren 9an, 23:00ean.

GETXO

- **Nazioarteko Folk Jaialdia.** Areetako Geltokia plazan eta aparkalekuan. Irailaren 8tik 11ra.

- **Folklore ikuskizuna.** Areetako Geltokia plazan. Irailaren 15ean.
- **Habanera eta Itsas-abesti Jaialdia.** Areetako Geltokia plazan eta aldameneko aparkalekuan. Irailaren 16tik 18ra.

PLENTZIA

- **Classical Jazz Ensemble.** Santa Maria Magdalena eleizan. Abuztuaren 10ean, 20:00etan.
- **Euskal kanta iriko barriak.** Santa Maria Magdalena eleizan. Abuztuaren 11n, 20:00etan.

GORLIZ

- **Borja Barrueta, Ivan San Miguel eta Carlos Velasco.** Elizan. Abuztuaren 13an, 20:00etan.

LEIOA

- **Luhartz.** San Bartolomeko jaiak. Abuztuaren 26an, 24:00etan.
- **Egan.** San Bartolomeko jaiak. Abuztuaren 27an, 24:00etan.

ZINEMA

GORLIZ

- **Ametzen lapurra.** Pilotalekuan. Abuztuaren 13an, 22:00etan.
- **Amerikanuak.** Teresianon. Irailaren 24an, 19:00etan.

SOPELA

- **Los viajes de Gulliver.** Urgitxieta plazan. Abuztuaren 27an, 22:00etan.

BESTEAK

LEMOIZ

- **Euskaraz olgetan: Perkusio ikastaroa.** Irailaren 3an, 17:00etan.

PLENTZIA

- **2011/12ko ikastaroetan izena ematea.** Goñi Portalen. Irailaren 1etik 15era.

SOPELA

- **Euskal Jaia.** Udaletxe plazan. Irailaren 10ean eta 11n.

URDULIZ

- **Euskaraz olgetan: Grafitti ikastaroa.** Irailaren 10ean, 10:00etan.

LEIOA

- **Bakailaoa Bizkaiko Erara txapelketa.** Ondizen. Irailaren 18an.


aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



UK labean

‘Ardoa barrura, sekretua kanpora!’ dio esaera zaharrak, eta 200. alea ardoagaz ospatzen ari garenez, sekretutxo bat kontatuko dizuegu. Alboko argazkietan UK-ko inprimaketa prozesua nola egiten den ikusiko duzu: fotolitoak, tolesteko makina erraldoiak, labeak... UK-ko errezetak ez du sekretu askorik: su baxuan aste bi eduki ostean... listo! UK bero-bero jasoko duzu zure buzoian! On egin!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





2000 zenbaki,
hamaika aurpegi

[berbetan]

“Euskara gure hizkuntza da, gure aberria, munduan egoteko eta mundua ulertzeko modua”. Martin Aspuruk Aberri Egunez bere semeari botatako esaldiari esker, UK-k 200 zenbaki kaleratzea lortu du. Jokin Aspuru (Getxo, 1968) zen esaldi hori bihotzean gorde eta bere bizitzaren ikur egin zuen seme errebelde hori. Berba horiek eraman zuten, lagun eta irakasle ohiakaz batera, Bizarra Lepoan aldizkaria sortzera orain 17 urte inguru eta berba horiek lagundu dute esku artean duzun aldizkariaren itsasontzia portu onera eramaten urte luzez. 200. zenbaki berezi honetan berarengana jotzea beharrezkoa ikusi dugu, bere izena lehen aldiz Staffean ikusiko ez baduzu ere, bere estiloa UK-ko orrietan bizirik egongo delako beti.

Jokin Aspuru

UK style

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Aixerrota Institutuan hasi zen dana; ikasleak eta irakaslea batu zineten aldizkari bat martxan jartzeko...

—Nik aldizkariaren sorreran izen bat aipatuko nuke: Aitor Gisasola. Hasiera-ko urteetan oso garrantzitsua izan zen. Gu Getxo 3ko ikasle ohiak ginen, baina hango irakasleekin harremana izan genuen, batez ere, Konrad Mugertza eta Bittor Egurrola ikastolako irakaslea izandakoarekin. Hasiera oso polita izan zen, gure irakasleak izandakoekin proiektu bat martxan jarri genuelako helduak ginenean; dagoeneko ez genituen 20 urte. Agian oker nabil, memoria txarrekoa naizelako eta gehiago gustatzen zaidalako aurrera begiratzea atzera begiratzea baino. Baina nik gogoratzen dut ikasle ohien proiektu bat izanda ere, irakasle-enganara jo genuela laguntza bila. Konrad asko lagundu zigun, teknologia kon-tuetan batez ere.

—Bakoitza bere lanean, bere kontuetan... nola batu zineten eta nondik sortu zen herri-aldizkari euskalduna sortzeko ideia?

—Nik uste dut sortu zela herri-aldizkariaren mugimendua sortzen hasi zelako.

Batez ere, Arrasate aldean sortu zen, eta parasitoen moduan, Euskal Herriko herri eta hiri askotan aldizkariak sortzeari ekin genion. Horren itzalean sortu zela esango nuke. Gure eskualdean ez zegoen ezer, Urdulizen egiten zuten Santamariñe izan ezik; baina euskaraz ez zegoen beste ezer. Ikusten genuen herri handia ginela, euskaldun mordoa zeudela... beharrezkoa zen.

—Txoritxo batek esan digu Barrukoa taberna ondoko lokaletan pizzak hartu, pertsiana jaitsi eta gaupasa egiten zenu-tela hasierako Bizarra Lepoan aldizkariak sortzeko...

“Hasiera oso polita izan zen; gure irakasleak izandakoekin proiektu bat martxan jarri genuen helduak ginenean”

—Hastapeneko urte haietan ilusioz berteriko proiektu baten sorrera bizi izan genuen. Danok geure lana geneukan eta aldizkarian musu truk lan egiten genuen. Lan handiena jendea koordinatzea zen eta gainontzekoa azken egunerako pila-tzen zen. Egun horretan aldizkaria amai-

tu behar zen eta goizaldeko 3:00ak arte gelditu behar bagenuen, geratzen ginen. Hor beste izen bat aipatuko nuke, garrantzitsua izan zena: Marije Bueno. Txolo Landaluzeren emazte ohia zen Marije. Txolori lokala eskatu genion, alokatzeko, baina utzi egin ziguten, den-bora luzez gainera. Proiekturako garrantzitsua izan zen; gainera, Marije aldizkariaren 0 zenbakia jendaurrean aurkeztu eta biharamunean hil zen. Guretzat flash-a izan zen. Beste oroitzapen nostalgiko bat: Barrukoa tabernako andra oso eskuzabala zen gurekin eta berandura arte gelditzen ginenean, sobera zituen pin-

txoak oparitzen zizkigula. Garai hartan jende asko zegoen aldizkarian, taldea askoz handiagoa zen. Proiektu amateurra zenez, talde-lana nagusi zen; kolabora-tzaile ugari zituen aldizkariak. Bakoitzak atal bat egiten zuen eta oso konplikatu-a zen dena bateratzea, baina ilusioa handia



zen eta miraria zen zenbaki bakoitza kale-
ratzea.

—Hasierako urte horietatik, lan egiteko modua aldatu da, baina proiektuaren filosofia ere bai?

—Lan egiteko modua jakina aldatu dela. Hasierako urteetan ez geneukan oso argi, baina gero konturatu ginen aldizkariak denboran irautea nahi bagenuen profesionalizatu behar zela, nahiz eta atzean eus-kara elkarte bat edo herriaren babesa eduki. Aldaketarik nabarmenena hori izan da. Baina filosofia aldetik, neuk, be-hintzat, ilusio bera daukat. Filosofia ber-bera da: euskarazko komunikabide duina, hurbila, gure garaia-ren testigantza jasotzen duena eta, batez ere, euskaldun ko-munitateari zuzendua.

—UKn mugitzen garenok entzun dugun kritika bat da UK kalitatezko produktua izan arren, elitista dela eta herriarengandik urrun dagoela. Zer esango zenieke hori esaten dutenei?

—Egia da UK ezberdina dela, beste herri aldizkari batzuekin konparatuz gero. Zergatik? Batetik, maiztasunagatik; agian ez dauka guk nahiko genukeen maiztasuna. Maiztasun egokiena astekaria izango litzateke. Bestetik, beti kontuan izan dugu UK gure irakurle gehienek euskaraz jasotzen duten komunikabide bakarra dela. Horregatik ahalegindu gara, alde batetik, informazio oso hurbila eskaintzen, herriko pertsonaiak... Azken finean, UKn agertzen den jende gehiena eskualdeko kaleko jendea da. Baina, bestetik, lehen esan dudan bezala, kontuan hartuta gure irakurle gehienek euskaraz jasotzen duten komunikabide bakarra dela, hori osatzen saiatu gara. Berbetan, Fotografia, musika, kultura... atal horietan kanpoko jendeari lekua egin diogu informazio osoagoa emateko. 56 orrialde ditu UK-k, egin genezake aldizkari txikia-go, baina nahiago izan dugu horrelakoa egin. Ez dut uste horrek herriarengandik urruntzen duenik.

—Agian, esan gura dutena da jendeak ez

duela sentitzen herriaren aldizkari beza-
la?

—Herriaren gauza hori niretzat oso gauza delikatu da. Azken batean, herria oso zabala da eta UK izan da, bada eta izango da UK egiten dutenen emaitza, eta ez herriaren emaitza. Nik hori oso argi daukat. Egileen irizpideen araberako lanaren fruitua izango da.

“Filosofia ez da aldatu: euskarazko komunikabide duina, hurbila, gure garaiaren testigantza jasotzen duena...”

—UK komunikabide modernoak da, berritzailea, argazki eta formatu aldetik batez ere. Uribe Kosta modernoak da eta horregatik da horrelakoa UK?

—Bai, izan da, baina horri ere buelta bat eman behar zaio. Hori neure buruari egiten diodan kritika da. Berritzailea izan da, baina aldatzeko ordua heldu da. Uribe Kosta horrelakoa delako? Ez dakit. Ez nuke beste herriak minduta sentitzerik nahi, baina UK Getxon sortu zen eta Getxo herri bat da, baina hiri bat ere bada. Azken finean, ia 100.000 biztanle ditu eta eskualdeak beste hainbeste. Modernoa... nahiz eta beti zaindu izan dugun “agro” ikutu hori, gure baserriak, erbakera eta horrelakoak, hortik etor daiteke modernotasuna. Getxo ez da hiri bat, baina ia bada hiria.

“Lehenengo gauza, esker ona. UK orain bada, jende hori guztia atzean musu truk lanean egon delako izan da”

—Bittor Egurrola, Unai Brea, Konrad Mugertza... pasa diren guztietatik zer gelditzen zaizu buruan?

—Iker Lores, Gorka Orueta... Lehenengo gauza, esker ona. UK orain bada, jende hori guztia atzean musu truk lanean egon delako izan da. Komunikabide bat, azken batean, harremanak dira, gure

mundua adierazteko eta besteen berri izateko bidea. Pertsona bezala hasteko garrantzitsuak dira. Komunikabide bat egiterakoan lagun asko eta pertsona asko irabazi ditut; batzuk galdu ere bai, baina horrekin ez naiz geratzen.

—Zerk uste duzu bultzatu zaituela hain-
beste urtez jarraitzera?

—Lehengo egunean, nire neska lagunak

UKn orain dela urte batzuk idatzi nuen artikulu bat pasa zidan. Nire aitaren eta nire psikoanalistaren inguruan hitz egiten nuen. Psikoanalista batekin egon naiz urte askotan, buruko osasuna inportantea dela uste dudalako. Berarekin landu nuen nire euskararekiko maitasunaren jatorria. Kurioa da orain gutxi amaitu dudala nire psikoterapiarekin, UKrekin amaitzeaz batera. Ziklo bat ixten da niretzat. Suposatzen dut nire aitarekiko, eta orokorrean, nire familiarekiko maitasuna eta horri lotuta doan euskararekiko maitasuna dela aurrera egiten lagundu didana.

—Lagunak, euskararekiko maitasuna... alde politaz hitz egin dugu. Baina UKren historian alde iluna, zaila ere egongo zen, ezta?

—Nik Euskal Telebistan nuen lana utzi

nuen proiektu honetan (UKn) sinesten
nuelako eta aurrera eraman nahi nuelako.
Lanpostu finko bat uztea horrelako
proiektu arriskutsua ateratzeko... zaila
zen, baina oso pozik egin nuen. Baina
bidea zaila izan da eta zoritxarrez, euska-
razko komunikabide bat ezin da lehiatu
gaztelaniazkoekin, mila arrazoiengatik.

Arazo asko hortik etorri dira. UK profesional egin genuenean, momentu latz asko egon ziren, askotan ez zegoen nominak ordaintzeko dirurik eta hori gogorra zen. Baina momentu horiek oso erraz ahazten dira. Une latz gehiago egongo dira, baina, zorionez, memoria selektiboa da eta horiek guztiak ahaztu ditut.

—Kanpotik entzun behar izan dugu Getxo eta Uribe Kosta inguru erdalduna dela, baina zu herri euskaldun batean bizi izan zara.

—Badago ideia bat lagun batek esan zidana, baina nik lapurtzen diot. “*Getxo euskaldundu dezagun*” eta horrelakoak esaten dira; hori oso konplikatua da, mundua horrelakoa delako, egoera horrelakoa delako... ez naiz soziolingustikan aditua eta ez dut izan nahi. Baina UK-k balio izan digu, niri eta UKtik pasa izan garen guztioi, maila batean Getxo euskalduntzeko, baina inportanteena

dena, gure bizitzak euskalduntzeko. Guk ez dugu Getxo euskaldundu, baina bai gure bizitzak. Guk lana euskaraz egiten duen aldizkari bat daukagu, nominak euskaraz egiten dituenak, harremanak euskaraz egiten dituenak etab. Hori da garrantzitsuena. Guk ez dugu eskualdea euskaldundu, baina bai jende askoren bizitza eta gurea, batez ere.

**“Guk ez dugu eskualdea euskaldundu,
baina bai jende askoren bizitza
eta gurea, batez ere”**

—Aurrera begira, zer eskatuko zenioke UKri?

—Batez ere, irauteko. Gauza bat desgertzen denean hil egin dela esaten da. Dagoen taldeari eskatuko nioke, orain arte egin den bezala, gauzak ahalik eta zuzenen egiteko; eskatuko nioke aldizka-

riak izan dezakeen bizitzarekiko interesa-
ri eusteko eta aldizkaria zenbakiz zenba-
ki berrasmatzeko.

—Eta herritarrei, aldzikariarekiko?
—Nik ez dakit askotan gure akatsa izan den, baina eskatuko nieke aldzikaria ordain dezatela. Eta kontura daitezela UK erakunde publikoen laguntzarekin egiten dela, baina beti independentea

izan dela. Finantza eta baliabideak independenteak dira, inoren morrontzarik gabekoak. Hori ere eskatuko nioke aldizkariari, horrelakoa izaten jarraitzeko. Azken batean, aldizkari profesionala da eta lan profesionala uste dut ordaindu behar dela. ○



Udazkenean ere euskarari heldu!


euskara

Maila guztiak ordutegi desberdinetan

EGA larunbat goizetan

Algortako Etorbidea 104
48991 Algorta - GETXO
Tf. 94 460 66 71

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net



BASORDA (LEMOIZ). IKER BASTERRETxea

Zein da zure Uribe KosTRa?

Ospakizun zenbaki honetan, UK-ko aspaldiko lagunei deitu eta txanponaren beste aldeari begira jarri ditugu. Kostalde edo mendi paisaia ederrak zein eskualdeko argazkilarien argazki artistikoak ekarri ohi ditugu orriotara. Uribe Kostako guneez begiradari eskaintzen dioten plazera aski ezaguna da: Meñakozeko egunsentiak, Getxo eta Berangoko lantzarak, Erandioko itsasadar ingurua... Oraingoan, ordea, eskualdeko zenbait argazkilariri kamararen objetiboa “postalekoak” ez diren lekuetara begira jartzea eskatu diegu. Guk *Uribe KosTRa* deitu diegu; horra hor eurenak. Zein da zure Uribe KosTRa?

Argazkiak: **Askoren artean**



ERANDIO. EDUARDO CAMINO




PORTU ZAHARRA (ALGORTA). HODEI TORRES



ALGORTA. ANARA DE LA TORRE




PUNTA BEGOÑA (GETXO). EIDER SANCHEZ



"GALERIA GALEAN" (GETXO). ITOIZ NAVARRO



ARRIGUNAGA (GETXO). KEPA ACERO




ALGORTA. ANDER ORMAETXEA



LAMIAKO. IGOR MERCADO



ALGORTA. ANIE BASAGOTTI



KIROL PORTUA (GETXO). MIKEL MARTIN



"AZKORRIKO PINUDIA 2011-7-14, 19:41". PERU ISASI



URDULIZ. ASIER MENTXAKA



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zuberera pantaila handian

Xora zubererazko lehen filma grabatzen ari dira; **2012an** estreinatuko dute



Filmaren kartela

Peio Cachenautek idatzi du gidoia eta berau zuzentzen ari da zubererazko lehen film luzea, *Xora*, Xiberoa Zinez egitasmoaren baitan. Lehen lana du Cachenautek, egunotan grabatzen ari dira eta datorren udabarrian estreinatu gura du. Hainbat erakunde eta herritarrek lagundu dute proiektuan, besteak beste, Hebertik elkartea, Aldudarrak Bideo elkartea eta Baleuko ekoizpen etxea.

Fikziozko lana bada ere, “Zuberoan egunero gertatzen dena” irudikatu gura izan du Cachenautek, hainbat alderdi uztartuz: hiri eta mendi bizimodua, euskaldun zahar eta euskaldun barriak

etab. Baloreen transmisioa ere landu du, ondorengoei utziko dietenaren gaineko gogoeta eginez.

Udabarrira arte, behintzat, ezin izango dugu *Xora* zine aretoetako pantaila handian ikusi, baina abendurako espero dute aurrerapen txiki bat prest edukitzea eta filmaren lehen irudiak eman ahal izatea Durangoko Azokan.

Parte hartzaileak musu truk ari dira lanean, zuberotar asko tartean

Oso aurrekontu murrizta dauka, 45.000 eurokoa. Nola liteke film luze bat horren diru gutxigaz grabatzea? Bada, parte hartzaileak musu truk ari dira lanean, gogotsu gainera. Izan ere, Eduardo Barinaga Bauleukoko kudeatzailearen iritziz, zaila da XXI. mendean horrelako freskotasan, ausardia eta sakontasunez sortu den proiektu bat topatzea.

Herritarrek ere dirua biltzen laguntzeko kanpaina bat egin dute. Gainera, aktore, antolatzaile eta teknikari lanean dabiltza zuberotar asko. Gura duenak oraindino badauka dirua ematea, Xiberoa Zinez egitasmoari laguntzeko irekitako kontu korrontean. Guztien ekarpenek posible egingo dute euskalki txikiek aurrera egitea. ○

Azken monografikoa

Nazioarteko Folk Jaialdia ospatuko dute Getxon irailaren 8tik 11ra, Areeta auzoan



Sarrerak: Algortako Kultur Etxea, 944 310 310, www.bbk.es eta BBK kutxazainak

Jazz, blues eta orain folk. Urtero tartea eskaintzen diete Getxon hainbat musika estilori, eta irailean, folk doinuak entzungo dira, 8tik 11ra. Areetako Geltokia plazan eta aldameneko aparkalekuan izango dira kontzertuak. Mota askotakoak izango dira, batzuk ordainduta eta besteak doan.

Saio nagusiak Geltokia plazan izango dira, 20:30ean eta ordainduta: 8an, egue-na, Korrontzi taldeak joko du eta Igor Yebra dantzaria gonbidatu du (5/8 euro); 9an arituko dira The Unusual Suspects eskoziarrak (10/15 euro), 10ean Idir alje-

riarrak (5/8 euro) eta 11n Dulce Pontes portugaldarra (10/15 euro). Egun guztietarako bonuak 20/35 euro balio du.

Plazaren ondoko aparkalekuan ere izango dira emanaldiak, 18:30ean zein 22:30ean, eta doan. 8an joko du Tambor de Saia taldeak, 9an Seafóidek, 10ean Josemi Carmonak eta 11n Maria Berasartek, 18:30ean. Gabaz, barriz, Audiencek joko du 8an, Ruaillek 9an eta Felah Mengusek 10ean. Umeentzako kontzertuak plazan izango dira, 12:30ean: 10ean Flamenco kids arituko da eta 11n Andres Isasi Musika Eskolako banda. ○

gorliz > musikaldia udan

Jaiak eta rock doinuak... Udako agendetako gai nagusia dira, baina ez bakarri; musika estilo desberdinek lekua daukate Uribe Kostan. Gorliz da horren lekuko, izan ere, erritmo lasaigoak biltzen dituen Musikaldia abian da uztailetik, eleizan zein pilotalekuan. Dagoeneko emanaldia eskaini dute Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Orkestra 201ek, Lirain abesbatzak eta Luberri Hari Hirukoteak. Baina abuztuak ere badakar entzunaldirik. Hilaren 13an jazz kontzertua eskainiko dute Borja Barruetak, Ivan San Miguelek & Carlos Velascok, eta 14an *Camerata Lirica* ikuskizunagaz gozatu ahal izango da; biak izango dira eleizan eta 20:00etan.

www.gorliz.net

guaitorock > finala Txorimalon

Uztaileko lehenengo zenbakian eman genizuen Guaitorock maketa lehiaketako finalisten barri, eta oraingoan, kontzertuaren tokia aurreratu digute: Algortako Txorimalo Gaztetxean jokatu dute finala Psyko (Portugalete), Baltzak (Algorta), Kilauea (Durangaldea), Ertz (Algorta) eta Urban (Bilbo) musika taldeek. Irailaren 16an ziren egitekoak, baina agian 17an ere egingo dute kontzertu bereziren bat; beraz, adi Txorimaloko agendari. Guaitorock lehiaketa da eta irabazleek maketa grabatuko dute Urdulizko Tio Pepe estudioan. 2010eko irailean egin zen lehenengoz egitasmo hau, Getxoko Andra Mari auzoan.

www.guaitorock.com

diskoak

Jazz project
Kike Mora
Baga Biga



Musikene Goi-Mailako Musika Ikastegiko musikari ohiakaz batera sortu du proiektu hau Kike Morak. Diskoak jazzaren estilo anitzetatik edan du, batzuetan *be bop*, besteetan swing, funky, inprobisazio edo kutsu afrikarrera hurbildu dira. Ainhoa Cantalapiedra, Kepa Junkera edota Korrontzi taldeagaz ibili da.

Elkano Browning...
Mikel Azpiroz
Mamusik



Mikel Azpiroz pianista (Donostia), Matt Harding gitarra eta abeslari (AEB) eta Franck Mantegari bateria jotzailearen (Frantzia) disko barria duzu Elkano Browning Cream 2. “*Mendebaldeko musikak eta afrikar, latindar zein ekialdeko*” doinuek bat egin dute, 60 eta 70eko urteetako doinuak berreskuratuz.

Material defectuoso
Extremoduro
Warner Music



Sei abesti baino ez dauzka Extremoduro taldearen azken lan honek, baina 43 minutu irauten du. Izan ere, musika garapen luzeak egin dituzte. Ziurtatu dutenez, Robe Iniestak sekula idatzitako letrarik onenetako batzuk biltzen ditu, eta taldearen aburuz, inoizko diskorik onenetakoa osatu dute. Hamabigarrena da; orain hiru urte kaleratu zuten aurrekoa.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Eskol' Herria kaleagaz bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Irratiaren poesia

Lizardiren baratza euskarazko lehen irratsaioa gidatzen du **Jose Luis Padronek**

“Betiko poesiaren eta gaur-gaurko poesiaren arteko lotura” irudikatzen du *Lizardiren baratza* saioak, Jose Luis Padron legazpiarrak dioenez. Berak gidatzen du euskarazko lehen irratsaioa Kattalin Ansorenagaz batera, eta azaldu duenez, hizkuntza poetikoan sustraitzen da saioa: *“Baratzak fruitu berriak ematen ditu, eta horrenbestez, iragana eta etorkizuna batzen dira bertan”*.

Baina ez pentsa bakarrik intelektua-lentzako saioa denik, irratia pizten duen orori lekua egiten diote. Izan ere, zer da poesia? Liburuetan idazten dena, gutunetan, komuneko atean? Horregatik, hainbat ataletan zatitzen da saioa: *Postariak beti...* tartean barrikuntzei buruz aritzen da Padron, *Paper euritsuak* atalean musi-

Poeta gazte eta hasibARRIERI leku egiten diete saioan, sorkuntza bultzatu asmoz

karen eta hitzen arteko loturaz, *Orainak orain* tartean entzulearengana gehiago hurbiltzen da poema bategaz, eta albiste bitxietatik abiatuta, hausnarketa poetikoa egiten du. Gainera, olerkarien ahotsean ere aditzen dira poemak.

Klasikoak ahaztu barik, poeta gazte eta hasibARRIERI ere tartea egiten diete, sor-



Xabier Lizardi poeta (1896-1933)

kuntza bultzatu guran. Olerkari klasiko bihurtuko dira egunen batean, agian.

“Modu atsegin batean konturatu gabe poesiak” aritzen dira, *“molde guztietako adierazpenekin: olerki, hitzezko aurkezpen eta musikarekin”*. Beraz, burua askatu eta olerkiakaz gozatzeko prest dagoena lagun dute *Lizardiren baratzan*.


Momentuz, irailaren erdialdera arte entzun daiteke Lizardiren baratza, egunero 20:00etatik aurrera, Euskadi Irratian, baina handik aurrera programagaz segitzea gustuko luke Padronek. Seguruenez, eta horrelakoetan legez, audientziaren mailak erabakiko du haren etorkizuna. ○

liburuak



Eta orain badakit
Tere Irastortza
Pamiela

Bere poemakaz zorientasunaren inguruan hausnartzeko gonbitea egin gura du Tere Irastortza zaldibiarrek. Bere bederatzigarren poesia lana da; horietako asko beste hizkuntza batzuetara itzuliak izan dira. Idazle oparoa eta euskal poesiaren ikur nagusietako bat da.



Pozik
Mies Van Hout
Ttartalo

Sentimenduei buruz berba egiteko aukera ematen du *Pozik* lanak. Umeei bideratuta badago ere, helduentzako erabilgarri ere bada. Poztasuna, tristura, beldurra, lotsa eta beste hainbat sentimendu ezagutuko ditu protagonista den arraintxoak.

[kirola]

Emilio Ramos > Ugeraga txirrindularitza taldea

“Asfaltados-Olarra gazteen taldeak Euskadiko pistako titulu guztiak irabazi ditu aurtan”



Emilio Ramos arduraduna Miguel Sanchez aholkulariagaz batera, txirrindulari taldearen egoitzan

Sasoian dabilta Ugeraga txirrindulari taldeko neska-mutilak. Gaztetxoek zein profesionalek hamaika titulu ekarri dituzte Sopelara. Kopak erakustez gain, Emilio Ramos Ugeraga kirol elkarteko txirrindularitza arduradunak denboraldiaren nondik norakoak kontatu dizkigu.

—**Aitor Reyk pistako puntuazioan urrezko domina eskuratu barri du. Beste titulu bat Ugeragarentzat!**

—Bai, Asfaltados-Olarra taldean 13 gazte-txok parte hartzen dute, zazpi lehen urtekoak eta sei bigarrenekoak. Gazte hauek pistako lanketa egin dugu; probak heldu eta denak irabazten hasi dira: Bizkaiko txapelketa, Euskadikoa, Bizkaiko erregulartasunaren txapela... Euskadiko pistako titulu danak irabazi dituzte, eta bereziki, Aitor Reyk.

—**Taldeak erakutsi duen indarragaz harrituta, beraz!**

—Bai, Aitor Rey, adibidez, Euskadiko txapelduna izateaz gain, Euskadiko errekorra egin du pistean. Baina ez da bakarrik txirrindulari bat, taldea osoa da. 13 karrera irabazi dituzte: Jon Astondoa, Iñigo Itu-

riaga algortarra, Alejandro Trapote sope-loztarra, Asier Jimenez...

—**Emakumeen gazte-taldea ere indartsu dabil...**

—Bai, Hotel Modus Vivendi da bere izena eta taldeaz gain, bertan Eider Merino nabarmendu behar dugu. Italian egindako Europako txapelketan, adibidez, hamargarrena lotu da. Sopelako txirrindularirik, zoritxarrez, ez dago taldean.

«Estatu mailan Lointek taldeko neskak dira indartsuenak»

—Profesional mailan, Lointek taldeak txapel ugari jantzi ditu aurtan, ezta?

—Zortzi karrera irabazi dituzte: Eneritz Iturriagak Euskadiko txapelketa eta Espainiako krono txapelketa irabazi ditu; Ana Usabiagak Gipuzkoako txapelketa, Leticia Gil, Belen Lopez... Estatu mailan Lointek taldeko neskak dira indartsuenak, eta gure asmoa hurrengo urteetan taldea indartzen jarraitzea da. ○

Info+: www.equipociclistaugeraga.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURIE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Xabier Buenaetxea > Bolueko hezeguneko kudeaketa arduraduna

“Dortokek ez daukate errurik, kontua zera da, hemen arazoa sortzen dutela”

Azken hamar urteotan 500 apoarmatu atera dituzte Getxoko Bolueko hezegunetik; izan ere, bertako espezieak bizirauteko arriskutsuak dira. Hamar urte daramatzate SOS Galapagos egitasmoagaz eta Xabier Buenaetxea kudeaketa arduradunagaz solas egin dugu.

—Nolatan dago hainbeste apoarmatu Boluen?

—Jendeak askatzen dituelako hazten direnean. Duela hamar urte arte Floridako *Trachemys scripta elegans* dortokak inportatzen ziren. Merkeak eta zaintzeko errazak ziren, baina hazten dira eta askatzen dituzte. Inbaditzaileak dira eta dena jaten dute, batez ere arrain, ornogabe eta anfibioen larbak. Horiek ez daude harripariotara ohituta eta ez daukate babesmekanismoirik. Bestalde, bertako espezieak azaldu dira. Apoarmatu istilzaleak eta apoarmatu korrontezaleak dauzkagu Boluen. Gune eguzkitsuengatik eta arrautzak ipintzeko guneengatik lehian dabil-tza. Eguzkia behar dute metabolismoa aktibatzeko eta gune onenengatik nor-gehiagoka aritzen dira. Gainera, bertako espezieek urtean behin baino ez dituzte ipintzen arrautzak, espezie inbaditzaileek, barriz, bost alditan ere jar ditzakete. Boluen garaiz kontrolatu dugu. Kontrolatu ezean, asko hazten da inbaditzaileen kopurua.

—Jendeak agian ez daki hori.

—Hasieran ez, orain baiezkoan nago. Baina dortoka onak eta txarrak bereizten dituzte, eta ez da horrela. Dortokak ez dira txarrak, ez daukate errurik, dortokak dira. Kontua da hemen arazoak sortzen dituztela. Pertsona batzuk ez dira horren



Buenaetxea, Bolueko hezegunean

jakitun, baina beste batzuk dortokak ezkutuan askatzen harrapatu ditugu. Boluetik ateratzen ditugunak Fauna Berreskuratzeko Zentrora eroaten ditugu, Gorrizera.

—Baina orain bestelako espezieak topatu dituzue, aldaketa nabaritu ei duzue.

—Floridako *Trachemys scripta elegans*

“Inportatutako animala bakoitzeko beste asko hiltzen da bidean eta kutxa batean bizitzera behartuta daude; hori da benetako mezua”

inportatzea debekatu zen, baina bestelako batzuk ez, eta komertzioa dibertsifikatu da. Antzeko beste batzuk ekartzen dituzte orain eta apurka agertu dira. Bitarteko naturalarentzako okerragoa da, espezie bakoitzak bere elika-hobia dauka eta. Batzuek landare gehiago jaten dute, besteek larbak etab. Kaltea zabalagoa da

eta komertzioaren ondorioa da.

—Nola konpon daiteke arazoa?

—Bi bide daude. Batetik, dortokak hezegunetik atera, baina ez du arazoa konpontzen. Gakoa komertzioan datza. Animalien komertzioa erregulatu beharra dago. Esan digutenez, laster txipa ipini beharko zaie dortokei, kontrolatu ahal

izateko. Espezie batzuk ez dira inbaditzaileak, eta komertzializatzeokotan, horiekin egin beharko litzateke. Bestalde, jendeak kontzientzia hartu beharko luke: inportatutako animala bakoitzeko beste asko hiltzen da bidean eta kutxa batean bizitzera behartuta daude. Hori da benetako mezua. ○

Fredi Paia

Herri-lurrek

Baserritarra jaubetza pribadun defensore handi da. Munarri mogidute, jaube ezbardine dekien lur-sail biren megide kanbiete, alkar hiltzeko errozoi ixeten zantxine. Eta geur bere, eskopete eskun de-kola etorko datsu, bere aldea-etxeko lurretan bazabiltzez.

Ostera, atzo goxera arten herri-lurrek egoten ixen direz eskualdeko herri duztiten. Hau de, herritar duztine eta inorenak bere ez ziren lurrek. Herri-lurretati eskuperaten eudezan industrializazio eurretari horren garrantzitsuk ziren sugarritarako mukurrek, labasuk iteko ote, irek, ganaduk soltun ibilteko bedarlekuk, karabiterako harrik, ikeztokik iteko larrenak eta iketzatarako egurre, arrantzalek langosta-otzarak iteko gurbitze...

Herri-lurrek zeintzu ixen ziren jakiteko zidur ona dire leku uztenak. Herri beten uzeneri baso edo mendi berbak batzen dakozenen, antxine herri-lurre ixen zala esan gure dau. Esaterako: Sopelmendi (Munarririkolanda baizen arean Berangorau, Fraidemendin paren), Barrikerbaso (txaletak egin gure ixen deudezan ingeru, Plentzikolatu-hormen paren), Algortabaso (Erandioko lurretan, Martun, XX. mende erdire arten Portu Zaharrekok bertati ekarten eudezan sugarrik), Urizarmendi (Lemuxen, Goikomendi bere esaten dako eta Bedarregi auzuneti Txiboko landara do)....

Herri lurrek ixeneko beste sail betzuten uztenak ez dosku zidurrik emoten. Grazik gure edadekok ondino bere akordun deuten zeintzuk ixen ziren. Ezpabere ez genko hain barriarik okingo, haxek erongo lekoz. Aitite-amamek esanta dakigu, kasureko, Getxon herri lurre ixen zala Galea duzti, itxesargiti Sopelara arten, Aiboagaz batera. Erandion, Akarlanda ingeru bere herri lurre ixen zan, edadekok *patatala* esatentsena, gerraten lur-sail hori duzti patata ereiteko ibili eudelakon. Berangon, Santa Anati gora



Santimami ingurua

Pozozabalera arten don esparruri, Getxoko Santa Kolomara ailegaten zana, *Baserrir* esatentsen lehengok. Eta eskualdeko mendi kukulla danen antzen, herritar duztine zantbertan egozan lehengaien gozamina.

«Atzo goxera arten herri-lurrek egoten ixen direz eskualdeko herri duztiten»

Ermite nahi eleza ingeruko lurrek bere herri-lurrek ixen ziren eregi zirenen. Auzolanen eta leku sagraduten in ziren horrek beharrok, gerora, aies, ingeruko etxek jaubetu badirez bere.

Akabuko, esan daigun, herri-lurrek zeintzuk ixen ziren jakiteko beste modu bet persona uzena deken basok topate dala. Esaterako, Plentzikolatu Isuskiza auzo Markes betena ixen zan aurki, gero Artabe uzeneko diruko batena, eta ingeruko basori *Artaben baso* esaten hasi dakoan bertakok, lelau koistea libre zana etxera ekarteko Artaben administradoreagaz in ber ixeten eudelakon tratu. Hori dela ta, persona uzeneri baso

berbe batzen dakonen antxine herri-lurre ixeneko dala esan gure dau.


Herri-lurrek karlistaden osten, foruk babesteko gerrate galdute kendu oskuzen. Forun defentsan altxauriko herriri isun itzelak imini otsezan Madrilleti. Horrek pagateko herri-lurrek saldu ber ixen eudezan. Kasu betzuten, Getxon lez, herrik batun iaun berana zana erosteko diru, baie ordun aginterik tranpe in eta euren aldeko aberatseri saldu otsezan. Getxoko kasun Rivaseko markesari saldu otsezan 1894ko garagarri-len hirun. Ganera, markesak in iaun lelango gauze herri lurrek hesitu eta geur aparkaleku ondono daozen pinuk iminte ixen zan. Getxoko herri, baie, ez zan errendidu eta demande imini otsen markesari. Madrilen ebatzi euden lurrek Markesari emote.

Francon sasoire arten luzetu zan herri-lurrek lapurtuteko jasa. Ordun kendu otsezan Leioztarrerri Santi Mamiko ermite ingeruko herri-lurrek, eta pribadu in.

Gatz egongo da horrek nozonoz eskuratuten, baie argi daone da, lur horreek ostu in oskuzela, gure arbason inpotentzin aurren. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezzi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



txakoli motaTx txakolina

leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanta Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61

LUTXANA-ERANDIO

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko**aukera**]

Bacalada Berangon

Abuztuaren 7an egingo dute txapelketa



Lekua hartzeko: berangokokukullaga@gmail.com edo 667 755 071

Udako azken UK, eta beraz, lehiaketen azken errezeta ere. Horregatik, aipatu barik ezin utz genezakeen bakailaoa. Hainbat txapelketetako protagonista da, adibidez, Leioako Ondiz auzoan Bizkaiko erara prestatuko dute irailaren 18an. Baina lehenago ospatuko dute Berangon *Bacalada*, abuztuaren 7an, eta orriotara ekarri dugu *Bakailaoa pil-pil* erara errezeta, Kukutxe Mendi txokoko Karmelo Larraskituren eskutik.

Ez da errezeta zaila, baina denbora behar du, lau egun lehenago hasi behar da eta bakailaoa gezatzen. Lehiaketara aurkezteko bederatzi xerra behar dira. Uretan eduki behar dira hozkailuan eta 14 orduan behin ur hori aldatu. Ondo sikatu behar da oihal artean eta ezkatak zein

hezurrak kendu. Bestalde, prestatzeko, bezperan berakatzak txigortu behar dira oliotan. Bazaude egiten hasteko prest.

Buztin-ontzian ipini behar da bakailaoa eta olioagaz eta berakatzakaz estali. Apur bat berotu, sua itzali eta 30 bat minutuz utzi egonean. Ariketa errepikatu. Orduan hasi behar da kazolari eragiten, leun-leun, bakailaoak gelatina bota arte... eta listo! Bakailaoa prest.

Larraskituk ez dauka aparteko sekreturik, bakailao ona, gradu bateko oliba olio eta mimoak, besterik ez. Asteotako errezetakaz sariren bat eskuratu baduzu, gu pozik. Eta ondo jan baduzu ere poza-go. Ondo pasa uda! o

Osagaiak: bakailaoa, oliba olio eta berakatzak



Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventosier@gmail.com
Móvil: 656773080

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Igeriketa egiten hasi zara, baina ez ote da izango udako eguzkiaren eragina? Tentuz ibili zurrutadakaz, edozer topa daiteke uretan... Eta kontuz, ito barik gero!

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Laneko azken egunetako estresagaz ahaztu egingo duzu oporretan eroan beharreko gauzen erdia. Lasai egon, supermerkatuak eta dendak edonon daude gaur egun.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Parrandan joan eta tonbolak topatuko dituzu. Sekula ez zara ibili eta probatuko duzu, baina jokoak erabat harapatuko zaitu eta jaietarako diru guztia xahutuko duzu. Argi ibili hurrengoan!

META

(Irailak 17 urriak 16)
Hilabeteak bila eta bila eman ostein, azkenean topatu duzu bizitzeko etxea, zorionak! Baina beste bost lagunakaz partekatzerik ez zenuen espero, ezta? Solasaldi ederrik ez zaizue faltako...

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Maletak egin, autoa hartu eta oporretan joango zara hor nonbaitera, baina nora? Bardin dio, bideak eroango zaitu leku ederren batera, zorte on!

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Herriko festak hastear daude eta jo ta su ibiliko zara lanean, koadrilen probak prestatzen. Zer postu lortuko duzue aurren? Postuak postu, ondo pasatzea da garrantzitsua.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zein ondo bizi zaren iraileko azterketarik barik, ezta? Gaintitu gabek urtarilerako utzi dituzu eta listo! Ondo eginga, bizitza ikastea baino zerbaiz gehiago bada.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Oporretan joateko dirurik ez eta herrian lotzea erabaki duzu, festarik festa. Goizean hondartza eta gauean herri herri ibiliko zara. Marijaiaren lagunik onena bihurtuko zara.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Azkenean iritsi dira opor egun zoragarriak! Hara, hona eta bestera ibiliko zara hilabete osoan, oporrak, jaiak eta lagunak beti alboan. Ondo baino hobeto pasako duzu.

EGUZKIA


(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hau da zure sasoi, Eguzki, baina non sartu zara? Lainoek eta euriak traba asko egiten ari zaizkizu. Jo iezazu ipurkada eder bat eta irten kalera, guztiak zain daukazu eta.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Ai ene! Zer politikak diren udako amodioak... Hondartza, itsasoa, amaren herriko lagunak etab. Aprobetxatu orain, iraila laster dator eta ekainera arte ez duzu barriro ikusiko...

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Akelarre galanta egin zenuen sanjuanetan, baina oraindik gogoan daukazu lagun hura, non ibiliko ote da? Hurrengoan galdeiozu izena eta nongoa den, aurkitzea errazagoa izango duzu eta.



Peña Txuri Surf Eskola
Surfa euskaraz gozatu!




Hastapen ikastaroak 4 urtetik aurrera
Hobekuntza ikastaroak Udan eta neguan
Kirol udalekuak Ekainaren 27tik Irailaren 9ra

Prezio bereziak talde eta euskaldunentzat.
Etorri surf mundua ezagutzera. Anima zaitetz!

Informazio gehiago: 675591266 – 600300244 www.ptxsurfeskola.com

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Zuhaitz handia, jatorriz Australiakoa, usain biziko hosto puntadunak ditue-na. 2. Samarioaren ikur kimikoa. Etxebizitza baten sarbide, ezkaratz. 3. Nasa, portu. Filmak eskaintzen dituzten aretoak. 4. Laga. Nortasun, instintu. Bigarren bokala. 5. Lur malkarren higidurak. Frantzioaren ikur kimikoa. 6. Herri hizkeran, eta. Urkabearen akabatua. 7. Uranioaren ikur kimikoa. Eguzki. ... egin, hoska egin. 8. Suitza eta Frantziako ibai handia. Aho-legar. 9. Ondasun handien jabe dena, dirudun. Musika nota, eskalan seigarrena. 10. Sagarroiak, trikuak.

Goitik behera

1. Pluralean, sakonera duten irudiez edo formez baliatzen den artea. 2. Bi-gundua. Siberiako ibaia. 3. Potasioaren ikur kimikoa. Ipar Euskal Herrian, izu. Polit, ikusgarri. 4. Lehen bi letrak. Gertaera harrigarria. 5. Bizkaieraz, beza-la. Pluralean, labore hautsa. 6. Hegazti zangaluzeak, moko luzeak eta kakodu-nak dituztenak. Intsektu mota, talde handitan bizi ohi dena. 7. Pluralean, itsas arrain mota. Eztainuaren ikur kimi-koa. 8. Garraio mota. Atea jotzearen onomatopeia. Huts, zero. 9. Garai bate-an hala esaten zitzaion txakurrari. Arma mota. 10. Apartak, guztiz egokiak.

Soluzioa

K	V	O	N	I	K	I	H	I	K
V	T	S	T	V	H	E	B	V	
O	I	K	O	N	V	D	O	H	
K	S	O	K	I	K	E			
V	U	T	V	K	R	U	V	T	
H	F	K	V	I	Z	I	U	T	
E	N	E	S	I	Z	T	U		
K	V	E	N	Z	I	V	K		
U	H	V	A	R	B	E	S	M	
A	V	T	O	A	L	I	P	T	

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein urtetan
kaleratu zen
UK aldizkariko
lehen zenbakia?

> Aurrekoaren erantzuna: Algorta
> Irabazlea: **Iñigo Quesada***

*Erantzunak e-postaz edo telefonoz irailaren 1etik aurrera
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Goi mailako
produktuen
otzara.



*Zenbat zenbaki
kaleratu ditu
UK aldizkariak?*

- 1.000.000
- 200
- 22

> Aurrekoaren erantzuna: Zeledon
> Irabazlea: **Maider Atencia***

* Erantzunak e-postaz edo telefonoz irailaren 1etik aurrera
*deitu telefonoz: 94 491 13 37



Bi lagunentzako
surf ikastaroa.



Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



RICHARD DE MIGUELEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

BERANGOKO FUTBOL TALDEA, 1985

Amaitu den denboraldia (2010-11), 25. urteurrenarena izan dugu, taldeak 1985-86an hasi zuelako bere ibilbidea Bigarren Erregionalean. Legez 1985-8-27an sortu zen eta lehen partida Markinako "Artibai"ren aurka 3-2 irabazi zuen 1985-9-28an, Nemesio Eskarda entrenatzailearen esanetara. Argazkia ez da lehen partida horretakoa, baina bai bere lehen denboraldikoa (1985-86) eta Sopelako "Urko" futbol zelaian (hareatsua orduan, gaur belar artifizialekoa) aterata dago, Berangoko taldeak ez zuelako futbol zelairik. Horregatik, Sopelan jokatu behar izan zuen denboraldi horretan; hurrengo denboraldian (1986-87), Berangoko "Iturriaga" futbol zelaia inauguratu zen. ○

Zutunik: Txuma Clavijo, Richard de Miguel, Hunberto Cirarda "Tito" (GB), Goio Axpe (atezaina), Koldo Mardaras, Juan Carlos Zalbidea.
Makurtuta: Oskar Uriarte, Iñaki Leizaola, Xabier Eguzkiza, Jorge Santamaria, Manolo Medina.

UK-KO POTOA > Sasi guztien gainetik, bizirik!

“UK-ko diktaduratik askatu eta bulego aske batean bizi gura dut”



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Bizirauteko jaioa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Nigel Coleren “Poztasunaren lorategian”.

Orain zarena izango ez bazina zer izango zinateke?

Hautsontzia, oso harreman estua izan dugulako, ia-ia familiakoak gara.

Eta zer ez zinateke izango?

Kazetaria. UK-koak ikusi ditut eta lan benetan gogorra da, koitxauak!

Aitor dezakezun bizio bat.

Ura eta eguzkia, baina oso gutxi ikusten ditut!

Zein da zure ametsetako bat?

UK-ko diktaduratik askatu eta nire oinarrizko eskubideak errespetatuko dituen bulego aske batean bizitzea da nire ametsa.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Postaria barik. Beti izaten ditu berba politak niretzako!

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Lola Flores, Lore eta Pupu, Goenkaleko Hortentsi eta Margari...

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Kimu barri pare bat bota ditut...

Parrandarik politenak non?

Algortako Amezti kalean gau ederrak igaro ditugu!

Gorrito duzun topikoa?

Landareei berba egin eta kantatu behar zaiela, aski da!

Zerk ematen dizu beldur?

Oporrek, abandonatuta uzten nautelako.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

UK-ko lantaldea eroango nuke; han utzi, eta bueltatuko nintzateke. ○


LABURREAN— UK-k 200 ale bete dituela ospatzeko, bidean egin ditugun lagunak oroitu nahi izan ditugu aldizkariaren ale berezi honetan: sortzaileak, kolaboratzaileak, elkarrizketatuak, harpidedunak... Aitormenetara, berriz, UK-ko langilerik beterrano eta finena ekarri gura izan dugu: potoa. Urteko 365 egunetan goizetik gauera arte egoten da bulegoan poto egin barik, bazter batean ahaztuta, inork garaztatu barik eta ezer kobratu barik. Lantaldearen joan-etorrien lekuko isila, Tabakoaren Legeagatik poztu den bakarrenetarikoa izango da, urteetan zehar zigarrokinak izan baitira bere lagunik minenak. Halanda be, benetako *azken superbibienteak* legez, bizirik jarraitzen du, gogortu egin ei da urteakaz, zer erremedio! Baina ba al daki inork zelan heldu zen potoa UKra? Gu baino lehenago heldu zen, behintzat... eta seguru gure ostean jarraituko duela!



Hamilton-ek eskaintzen dituen zerbitzuak: Servicios que ofrece Hamilton:

- **Eskolaorduz kanpoko eskolak ikastetxeetan**
Clases extraescolares en centros escolares
- **Eskola jarraikoak taldeka**
Clases regulares en grupo
- **Eskolak bakarka**
Clases particulares
- **Hiru-hilabeteko eta hilabeteko ikastaro trinkoak udan**
Cursos intensivos trimestrales y mensuales en verano
- **Eskolak enpresetan**
Clases en empresas
- **Itzulpenak**
Traducciones
- **Egonaldiak familia baten Ingalaterran**
Estancias en familias en Inglaterra
- **Kanadan kanpamenduak eta familietan egonaldiak**
Campamentos y estancias en familia en Canada

Dr. Landa kalea 6 ● behea 48600 SOPELA
Iberre kalea 9 ● behea 48600 SOPELA
info@didakhamilton.com ● www.didakhamilton.com ● Tf. 94 676 30 12



1-30 IRAILA
SEPTIEMBRE
GETXOPHOTO
2011 ZAHARREI GORAZARRE
ELOGIO DE LA VEJEZ

MICHAEL ACKERMAN / LUIS COBELO / MAJA DANIELS / RICKY DAVILA / KAYLYNN DEVENNEY /
STEPHANIE DIANI / PATRICK DUNCAN / JOSEP ECHABURU / ANA GALAN / SACHA GOLDBERGER /
PETER GRANSER / SANDER MARSMAN / VICENTE PAREDES / NELLY RODRIGUEZ /
WALTER SCHELS / ANNET VAN DER VOORT / ANDREW ZUCKERMAN

Komisarioa / Comisario: Frank Kalero

WWW.GETXOPHOTO.COM

antolatzailea / organiza

BEGIHANDI

babesleak / patrocinan

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

BFA
DFB
Euzko Futbol Federazioa
Diputazioa Foral de Bizkaia
Bilbo
Departamento de Cultura

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURAREN
DEPARTAMENTUA

Estudios
Durero

bbk

GETXO
PHOTO